

Euskara

HITZALDIAK

GIZA ESKUBIDEEN
ALDEKO **BALIABIDE**
PEDAGOGIKOEI
BURUZKO **III.**
NAZIOARTEKO
MINTEGIA
INGURUMEN ESKUBIDEAK

Eskura. Giza Eskubideen aldeko
Baliabide Pedagogikoak
Tf: 688 83 82 60
E-maila: info@eskurazentroa.eus
www.eskurazentroa.eus

Izenburua: Hitzaldiak. Giza eskubideen aldeko baliabide pedagogikoei buruzko III. Nazioarteko Mintegia. Ingurumen-eskubideak.

Egileak: David Boyd, Georgia Karavangeli, José Ruiberriz de Torres, Lydie Lescaumontier, Luis González Reyes, Jose Manuel Gutiérrez Bastida, Natalia Riera Manzano, Yayo Herrero López, Arantza Acha de la Presa, Eskura Giza Eskubideen aldeko Baliabide Pedagogikoen Zentroa.

Irudiak: Improvisaciones ilustradas.

Ekoizpena: Eskura Zentroa.

Diseinua eta maketazioa: Quod Sail.

Argitalpen-data: 2022ko Uztaila.



Obra hau askatasunez kopiatu, banatu eta publikoki komunikatu daiteke, baldin eta helburu hezitzaileekin bada, helburu komertzialetarako erabili gabe bada eta egiletza aitortzen bada.

Argitalpenaren edukia egileen erantzukizun eskusiboa da, eta ez du nahitaez adierazten Eskuraren iritzia.

Aurkibidea

1. Ingurumen Eskubideak, Giza Eskubideak bermatzeko <i>Mr. David Boyd. Nazio Batuetako giza eskubide eta ingurumen arloko errelatore berezia</i>	7
2. The Phoenix Journey: ingurumen politikak eta gizarteratze politikak batera sortzeko ikaskuntza prozesua <i>Georgia Karavangeli eta José Ruiberriz de Torres López. ENI CBC Programme, MedTOWN koordinatzaileak</i>	13
3. Mahai-ingurua: Ingurumenarekin eta giza eskubideekin lotutako hainbat hezkuntza esperientzia herritarrentzat <i>Eskura Giza Eskubideen aldeko Baliabide Pedagogikoen Zentroa</i>	19
4. Ekopedagogia eta ekopazifismoa, hezteko giltzarri gisa <i>Eskura Giza Eskubideen aldeko Baliabide Pedagogikoen Zentroa</i>	23
5. Klima Hezkuntzako Bulegoa. Klima aldaketan hezteko nazioarteko ekimena <i>Lydie Lescaumontier. Unescoren Klima Hezkuntzako Bulegoko arduradun zientifikoa</i>	29
6. Hezkuntza ekosozialerako baliabide pedagogikoak <i>Luis González Reyes. Fuhem Fundazioako hezkuntza ekosozialaren koordinatzailea</i>	33
7. ESenRED. Justizian eta jasangarritasunean hezteko eskola-sareak <i>Jose Manuel Gutiérrez Bastida. Esenred jasangarritasuneranzko eskolen Espainiako sarearen kidea</i>	38
8. "Bizitzaren aldeko ekintzaileak" proiektuko baliabide pedagogikoak <i>Natalia Riera Manzano. Herriarte Elkarteko hezkuntza teknikaria</i>	43
9. Ingurumen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzarako postulatu ekofeministak <i>Yayo Herrero López. Ikertzailea, irakaslea eta Garúa S. Kooperatibaren kidea</i>	47
10. Giza eta ingurumen eskubideetarako hezkuntza <i>Arantza Acha de la Presa. Unesco Etxea – Euskadiko Unesco Zentroaren zuzendaria</i>	51

Eskura Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroa da, eta Donostiako Aiete Jauregian dago.

2018ko otsailean sortu zen, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren arteko lankidetzari esker.

Eskuraren **misioa** informatuta dagoen komunitate bat sustatzea da. Komunitate horretan, pertsona guztiek gure eskubideak ezagutzeko eta ulertzeko aukera izango dugu, eta gai izango gara gure eguneroko jardunean eskubideok erabiltzeko eta bultzatzeko. Horretaz gain, gauza izango gara, baita ere, iraganeko eta oraingo bidegabekeriez eta giza eskubideen urraketez jabetzeko, eta, gure gizartearen aniztasunean, bizikidetzak baketsuan zentratutako etorkizuneko erantzun bat emateko.

Pedagogia-Baliabideen Zentroaren **helburu orokorrak** honako hauek dira:

- Giza eskubideekin konprometituta dagoen eta haien urraketen aurrean gaitasun kritikoa duen gizarte bultzatzea.
- Hezkuntza eta partaidetza arloko aukerak eskaintzea, gure egungo testuinguruan bakearen eta bizikidetzaren pedagogia garatzeko.

Zentroak **lau jardueramota** garatzen ditu:

- *Honako hauek biltzea*: giza eskubideei lotutako hezkuntzako, pedagogia sozialeko eta herritarren partaidetzako pedagogia-baliabideak, materialak, euskarriak eta jardunbide egokiak.
- Giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideak *sortzea*.
- Honako hauek zabaltzea: giza eskubideei lotutako hezkuntzako, pedagogia sozialeko eta herritarren partaidetzako pedagogia-baliabideak, materialak, euskarriak eta jardunbide egokiak, hezkuntzako, elkarteetako eta erakundeetako eragileekin lankidetzan.
- Giza eskubideengatik eta giza eskubideen alde lan egiten duten eragile, entitate eta *erakundeekin batera aritzea*.

Horretarako, honako **hauek dira jarduketetako batzuk**: giza eskubideei lotutako gai baten inguruko baliabideei buruzko azoka eta nazioarteko mintegi bat, hileko buletin bat eta abar.

2021ean, giza eskubideak eta ingurumen-eskubideak izenpeko gaia landu zen, ikuspegi pedagogiko eta sentsibilizatzeko asmoko batekin. Ezin dugu ahaztu, gaur egun, oraindik ez diogula erantzun egokia eman erronka garrantzitsu bati: giza eskubideen eta ingurumen jasangarriaren arteko elkarguneari behar bezala heltzeko erronkari, alegia. Horretarako, gizarte zibil antolatuak, arloetako profesionalek, estatuek eta nazioarteko egiturek hainbat hamarkada daramatzate lanean, hausnarketak egiten eta eztabaidatzen. Zorionez, 2021eko urriaren 8an, Giza Eskubideen Kontseiluak onartu zuen arriskurik gabeko ingurumen garbia, osasungarria eta jasangarria izatea oinarritzko giza eskubidea dela.

2021eko urriaren 6an eta 7an, Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen III. Nazioarteko Mintegia: Ingurumena eta Giza Eskubideak egin zen, Eskura Zentroak antolatua. Hemengo, estatuko eta nazioarteko profesionalek parte hartu zuten (Eskuraren webgunean ikusi daitezke biografiak).

Argitalpen honek bertan aurkeztutako txostenen eta mahai-inguruaren eduki nagusia jasotzen du. Aurkezpenen bideoen **hiperestekak** ere biltzen ditu.

www.eskurazentroa.eus

FB / Twitter / Instagram: @eskura_aiete

YouTube: Eskura Zentroa



Ingurumen eskubideak, giza eskubideak bermatzeko

David Boydek idatzi eta emandako hitzaldia. Giza eskubideei eta ingurumenari buruzko kontalari berezia. **Nazio Batuak**

David Boyd, Kanadakoa da, eta, egun, Nazio Batuen giza eskubideen eta ingurumenaren inguruko errelatore berezia da. XXI. mendeko giza eskubiderik kritikoenetako baten berri ematearen ardura du: ingurumen osasungarrirako eskubidearena.

Zientzialariek zenbatetsi dute 100 mila milioi planeta daudela Esne Bidean, eta are gehiago uni-berteroan. Genio zientzialarien hainbat belaunaldiren ahaleginak ahalegin, guk dakigunez planeta bakarrak izan dezake bizitza: Lurrak. Planeta berde-urdira edo hau mirakulu bat da, mirari natural zoragarri betea.

Hala ere, ez da behar bezala baloratzen, eta sekulako kaltea ekarri zaio. 1964. urtean, Lurreko populazioa 3,2 mila milioikoa zen. Gaur egun ia 8 mila milioi gara. Berrogeita hemezortzi urteetan zehar, gas isurketak hirukoiztu egin dira. **Klima larrialdi bat eragin da, biodibertsitate krisi bat, etengabeko poluzioa, eta jatorri zoonotikoko gaixotasun infekzioso olde bat ere bai, COVID-19aren pandemia lazgarriak erakutsi duenez.**

Hala ere, giza eskubide guztiak daude biosfera osasuntsuaren eta klima seguruaren mendean. Biodibertsitatearen mende dauden ekosistema funtzionalik gabe ez legoke arnasteko aire garbirik, edateko urik edo jan elikagarriarik. Koilarakada bete lurrek milaka milioika mikroorganismo ditu (algak, bakterioak, ondoak eta abar), landareak elikatzen dituztenak eta gaitzetatik eta patogenoetatik babesten dituztenak. Ekosistema osasuntsuek orekatzen dute Lurreko klima, airea eta ura iragazi egiten dituzte, mantenguaiki birziklatzen dituzte, eta desmasia naturalen eragina arintzen dute. Adibidez, mangladi ekosistema osasuntsuek babestutako kostako komunitateek heriotza probabilitate txikiagoa dute zikloietan.

Munduko ingurumen krisiak mehatxatutako eta urratutako giza eskubideen artean daude bizitza-erako eskubidea, osasunerakoa, janarirakoa, urerakoa, bizitza maila egokia izatekoa, kultura eskubideak, herri indigenen eskubideak eta haurren eskubideak. Urtean zazpi milioi pertsona hiltzen dira behar baino lehen airearen poluzioagatik, eta haietako hamarnaka mila bost urtetik beherako haurrak dira. Ur kutsatuek eta gai kimiko toxikoen beste bizpahiru milioi pertsona hiltzen dituzte urtero.

Hainbat hamarkadetatik hona, gobernuek hitzarmenak sinatu dituzte, eta hitzeman egin dute klima aldaketari, kutsadurari eta biodibertsitatearen gainbeherari aurre egingo dietela, bereziki NBERen Klima Aldaketaren Esparru Konbentzioan eta Dibertsitate Biologikoaren Konbentzioan. Atzera begira, hitzontzikeria, ekintza urri eta promes hautsi pila bat besterik ez direla somatu da.

1992tik, gas naturalaren erabilera % 82 hazi da. Petrolioarena, % 36. Ikatzarena, % 68. Batez beste, berotegi-efektuko gas isurketak % 60 baino gehiago hazi dira. 2015eko Parisko Itunean,

nazioek hitzeman zuten munduko tenperaturen batez besteko igoerari 2 graduan eustea, eta 1,5ean mantentzen saiatzea. Dena den, dagoeneko 1,1 igo da, eta argi dago gizateria ez dagoela Parisko helburuak betetzeko bide onean.

Antzeko zerbait gertatu da 2000ko Biodibertsitate Konbentzioan alderdiek natura babesteko adostutako helburuekin, ez baitzen bat bera ere bete 2010erako. Biodibertsitateari lotutako Aichi helburu bat bera ere ez zen bete 2020rako.

Zientzialarien ohartarazpenak inoiz baino zuzenagoak eta muturrekoak dira. IPCCk, IPBESek eta OMEk gizartearen aldaketa azkar, sistemiko eta eraldatzaileak eskatu dituzte, munduko ingurumen krisiari heltzeko.

Horregatik dute giza eskubideek rol ezinbesteko eta itxaropen handikoa. Azken mendeetan, eskubideek txinparta lana egin dute gizartean eraldaketak pizteko, hala nola esklabotzaren abolizioa, emakumeen berdintasunerako aurrerapausoak eta *apartheidaren* amaiera. Eskubideak estrategikoki eta arrakastaz erabiltzen ari dira herri indigenak, LGTBQ+ norbanakoak eta desgaitasunak dituztenek. Inoiz ez da sinplea, erraza edo azkarra, baina, zalantzarik gabe, giza eskubideek aldaketa eraldatzaile positiboak eragin dituzte.

Giza eskubideek lagundu dezakete nazioarteko ingurumen legearen Akilesen orpoa gainditzen, betearazteko mekanismo eraginkor eza eta ondoriozko erantzukizun falta, hain zuzen. 2019an, Herbehereetako Auzitegi Gorenak, Urgenda kasu sonatuan emandako epaian, iritzi zion Herbehereetako gobernuak herritarren eskubideak urratu zituela (adibidez, bizitzeko eskubidea), Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean jasotakoak, ez zuelako nahikoa neurri hartu berotegi efektuko gas isurketak murrizteko. Klima krisia zeinen larria den argitara ekarri duen ebidentzia zientifikoa aintzatetsiz, auzitegiak gobernuari agindu zion isurketa murrizketa azkarrago eta sakonagoak ezartzeko. Gobernuak, ondorioz, ikatza zerabilen energia instalazio bat itxi zuen, milaka milioi dolar inbertitu zituen energia berriztagarrietan, eguzki panelak jarri zituen eskola guztietako teilatuetan, abiadura mugak murriztu zituen eta abar. Ingurumen legeek eta giza eskubideek, batera, erantzukizuna dakarte.

Giza eskubideetan oinarritutako ingurumen kasuak ugaritzen ari dira mundu osoan. Torres itsasarteko uhartetarrek Australia salatu zuten NBEen Giza Eskubideen Batzordearekin, argudiatuz Australiak klima aldaketan duen paregabeko errekorrek arriskuan jartzen duela haien bizitza, osasuna eta kultura. Greta Thunbergekin eta beste hamabost gaztek antzeko salaketa bat jarri zuten NBEren Haurren Eskubideen Batzordean, argudiatuz klimaren inguruko jarduketa okerrekin beren eskubideak urratzen dituela.

Are indar handiagoa du, ordea, planetaren ingurumen larrialdiari dagokionez, ingurumen seguru, garbi, osasungarri eta jasangarri bizitzeko eskubidearen gorakadak eta bilakaerak. Nazioartean, eskubide hori lehen aldiz Stockholmeko Adierazpenean aipatu zen, ingurumenaren inguruko munduko lehen goi bileratik sortu zen adierazpen politikoan. Portugal eta Espainia izan ziren lehen herrialdeak eskubide hori beren Konstituzioetan jasotzen, 1971n eta 1978an, hurrenez hurren. Egun, eskubide hori 100 herrialdeetako baino gehiagoko konstituzioek babesten dute. 100 herrialde baino gehiagotan, ingurumen legeetan dago jasota. Ingurumen osasungarriko eskubidea eskualdeko giza eskubideen itunetan lehen aldiz 1981ean azaldu zen, Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutunean, 1988an Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren San Salvadorreko Protokoloan, 1998an Aarhus Konbentzioan, eta gero Arabiako Gutunean, Asia Hego Ekialdeko Nazioen Elkartearen Giza Eskubideen Adierazpenean eta, aurten, Escazu hitzarmenean. Guztira, ingurumen osasungarriko eskubidea NBEko estatuen % 80k baino gehiagok aintzatesten dute legez (156k 193tik).

Ingurumen osasungarriko eskubidea eskubide substantibo eta prozedurako multzo bat da. Alderdi substantiboak barne hartzen ditu aire garbia; ur seguru eta nahikoa; era osasungarri eta jasangarri ekoiztutako jana; bizitzeko, lan egiteko eta jolasteko moduko ingurumen ez-toxikoak; ekosistema eta biodibertsitate osasuntsua; eta klima segurua. Prozedurako eskubideen artean daude ingurumenari buruzko informaziorako irispidea, ingurumenari buruzko erabakietan parte hartze publikorako eskubidea eta justiziarako irispidea. Ingurumen osasungarriko eskubidea-

ren interpretazioak hainbat printzipio gakori jarraitzen die, hala nola bazterkeria ezarenari, atzera ez egiteari, ardurarenari eta prebentzioarenari.

Jendeak hau ere galdetzen du: honek zeozer aldatuko al du? Erantzuna BAI EZKOA da, zalan-tzarik gabe. Ikerketek frogatzen dute ingurumen osasungarrirako eskubidea izan dela ingurumen lege eta politika indartsuagoak pizteko txinparta, horiek hobeto ezartzeko eta betearazteko, ingurumenari buruzko erabakietan parte hartze publikoa handitzeko eta, are garrantzitsuago, ingurumen jarduna hobetzeko. Halaber, erakusten dute eskubide hori aintzatetsi duten herrialdeek azkarrago murriztu zutela aireko kutsadura, berotegi efektuko gasen isurketen murrizketa handiagoa izan zela bertan, eta edateko ur segurua beren herritar gehiagori helarazi zutela.

Hona hemen munduko hainbat adibide zehatz.

Esloveniak, ingurumen osasungarrirako eskubidearen defendatzaileen buruan dauden herrialdeetako batek, erabaki zuen seriotasunez heltzea birziklatzeari eta konpostatzeari. Zabortegietara bideratutako hondakinen ehunekoa % 76tik % 7ra jaitsi zen 2009 eta 2017 artean, hori dela eta Eslovenia Europako eta munduko buru bihurtu zen birziklatzearen alorrean. Esloveniak naturagune babestuak ere handitu egin zituen, herrialdearen % 40 hartzeraino.

Costa Rica diru sarrera ertainak dituen herrialde txiki bat da, ingurumen osasungarrirako eskubidearen boterearen inguruan inspiratzeko moduko historia duena. Eskubide hori beren konstituzioan 1994an sartu zutenetik, Costa Ricak hainbat hamarkadako deforestazio prozesua irauli du, eta basoen azalera bikoiztu egin du, % 25etik % 50era. Parke nazionalak lursail babestuak ere handitu egin dituzte, % 28ra arte. Zeru zabaleko meatzeak eta itsas azpiko gas ustiapena debekatzeko legeak onetsi dituzte. Beren elektrizitatearen % 98 sortzen dute airearen, uraren eta eguzki argiaren bitartez. Karbono zergetako diru sarrerekin herri indigenei eta nekazariei ordaindu egiten diete lurrak mantentzeko. Haien helburua da munduan lehen herrialdeetako bat izatea beren ekonomia oso-osorik deskarbonizatzen.

Frantzia, ingurumen osasungarrirako helburua beren konstituzioan sartu zuten 2004an, Ingurumenaren Gutun labur baina indartsu batean. Hori izan zen txinparta, *frackinga* debekatzeko munduko lehen lege nazionala, erleak hiltzen dituzten pestizida neonikotinoideen erabilera guztiak debekatzeko munduko lehen lege nazionala eta, berrikiago, Frantziako enpresei Frantzia erabiltzea debekatuta dauden pestizidak inportatzea debekatzeko dien lege bat ekarri zituena. Frantzia munduko lehen herrialdeetako bat izan da aitortu duena legez bere herritarrak eskubidea dutela aire garbia arnasteko.

Ingurumen osasungarrirako eskubidean duten lidergotza ikusita, ez da harritzekoa Costa Rica eta Frantzia mahaiburu kide izatea Naturaren eta Pertsonen aldeko Asmo Handiko Koalizio inspiratzailean, 2030erako Lurreko lurraren eta uraren % 30 babesteko eskubideetan oinarritutako ikuspuntua duena.

Kroazia da beren konstituzioaren, nazioarteko itunen eta legedi nazionalaren bidez ingurumen seguru, garbi, osasungarri eta jasangarrirako eskubidea aintzatetsi duten NBEren 156 kideetako bat. Kroaziako gobernuaren hitzetan, "eskubide horrek lagundu egin zuen biodibertsitatea eta ekosistema osasuntsuak babesten, mantentzen eta lehengoratzeko, Kroaziaren agenda politikoan naturaren babesari lehentasuna emanez. Natura babestea ordena konstituzionalaren balio gorenetako bat da". Kroaziak bere lurren % 38,3 babestu ditu.

Argentinan, ingurumen osasungarrirako eskubideari esker, milaka milioi dolar inbertitu dituzte Matanza-Riachuelo arroa lehengoratzeko, eta, azkenik, Buenos Aireseko inguru pobreenetan bizi direnen eskubideak errespetatzen.

Txilen, ingurumen osasungarrirako eskubideak berekin ekarri du Quintero-Puchuncavi sakrifizio gune sonatua garbitzen eta lehengoratzeko hastea.

Kenian, ingurumen osasungarrirako eskubideari esker, ekialdeko kostan kokatutako Lamun ikaitez elikatutako energia proiektu zorigaitzoko bat bertan behera gelditu da.

Mexikon, ingurumen osasungarrirako eskubidea erabili zen mangladi ekosistema bat hondatu behar zuen garapen turistikoko suntsitzea bat atzera botatzeko.

Filipinetan, ingurumen osasungarrirako eskubideaz baliatu ziren baso zaharrak mozteari uzteko eta Manilako badia garbitzeko, zein lehengoratzeko proiektu erraldoi bat abiarazteko.

Kolonbiako haur eta gazte talde batek auzi bat ireki zuten beren gobernuaren aurka, deforestazioa zela eta, eta 2018an Kolonbiako Auzitegi Gorenak mundu mailan garrantzi handia duen epaia eman zuen, klima larrialdia eta krisi naturalari heltzen diena. Auzitegiak ebazti zuen Kolonbiako Amazoniako oihana deforestatzeak urratu egiten duela ingurumen osasungarrirako eskubidea. Auzitegiak gobernuari agindu zion gazteekin eta zientzialari adituekin biltzeko, deforestazioa bizkor amaitzeko plan bat garatzeko.

Brasilen, Auzitegi Gorenak epai bat emateko dauka, Bolsonaroren gobernuaren politika klimatikoaren aurkako kasu batean, erabakitzeke bat ote datozen ingurumen osasungarrirako eskubidea errespetatzeko eta babesteko konstituzio betebeharrarekin.

Gaur-gaurkoz, Hego Afrikako eta Indonesiako auzi bana daude; haietan, herritar kezkatuek eta gizarte zibileko antolakundeek argudiatzen dute aire kutsadura kroniko eta toxikoak urratu egiten duela ingurumen osasungarrirako duten eskubidea.

Adibide positibo andana dago. Iaz, txosten bat egin zitzaion Genevako Giza Eskubideen Kontseiluari, **ingurumen osasungarrirako eskubidea aintzatezteko eta ezartzeko 500 jardunbide egoki baino gehiago deskribatzen zituena**, 150 herrialdetik baino gehiagotatik jasotakoak. Ikusgarrienetako bat, hauxe: Naturaren eta Pertsonen aldeko Asmo Handiko Koalizioa, Europako Itun Berdea eta Harresi Berde Handia, Afrikako 21 nazio Sahara basamortuaren hegoaldeko Sahel eskualdean garatzen ari diren oso asmo handiko proiektua. Milaka milioi zehatz ari dira landatzen, milioika hektarea lur lehengoratzeko nekazaritzarako, ura biltzeko sistemekin eta eguzki energiarekin. Harresi Berde Handiak nabarmen hobetuko ditu milioika pertsonen bizitzak, eta osasun ekologikoa lehengoratzeko du.

Tamalez, milaka milioika pertsonaren ingurumen osasungarrirako eskubidea oraindik ere ez dago aintzatezita. Hogeita hamazazpi herrialdek, Estatu Batuek, Txinak, Kanadak, Erresuma Batuak, Japoniak eta Australiak barne, ez dute eskubide hori aitortzen, baina Kanadan eta AEBn laster alda daiteke hori.

Etsigarria da ere eskubidea inoiz ez dela mundu osoan aitortu. NBE ingurumen osasungarrirako eskubidea aintzatezteaz eztabaidatzen aritu da 1990eko hamarkada hasieratik. 100 milioi pertsona baino gehiago hil dira goizegi, saihestu zitezkeen ingurumen arrazoiengatik, eztabaida horiek hasi zirenetik. Estatistika ulertezina da, ez bairik gabe.

Badago berri onik ere, ordea: inoiz baino indar handiagoa dago NBE ingurumen osasungarrirako eskubidea aintzatezteko. Estatu multzo batek, Costa Ricak, Fijik, Finlandiak, Maldivek, Monakok, Marokok, Esloveniak eta Suitzak osatutakoak, ebazpen bat mahaigaineratu du. Iazko irailean, gizarte zibileko 1.000 erakundek baino gehiagok idatzi zioten Giza Eskubideen Kontseiluari, premiaz esku har zezan. NBEren idazkari nagusiak, Giza Eskubideetako goi komisarioak, NBEren Ingurumen Programak eta UNICEFeko buruak eskatu dute NBEk eskubide hori aintzatez dezan.

Beharra inoiz ez da izan hain handia.

Epe laburreko helburua da mundu osoan ingurumen osasungarrirako eskubidea onartzea, Giza Eskubideen Kontseiluaren eta Batzar Nagusiaren ebazpenen bidez. Epe ertainean, eskubidea mundu mailako tresna legez lotesle batean txertatu beharko litzateke, adibidez, Frantziak proposatutako Ingurumenaren aldeko Munduko Akordioan, edo Nazioarteko Hirugarren Itunean. Azkenik, eskubide hori Giza Eskubideen Adierazpenean erantsi beharko litzateke.

Legez lotesleak ez badira ere, NBEren ebazpenek badute eragina. 2010ean, NBEk lehen aldiz aintzatezitu zuen urerako eskubidea. Orduetik, eskubidea konstituzioetan txertatu da, lege eta politikan erantsi da, auzitegien epaietan eragina izan du, eta, are garrantzitsuago, promesa be-

tetzeko gobernuen ekintza sustatu du. Botswanan, Apelazio Auzitegiak ebazpenari erreferentzia egin zion 2011n, gobernuari agintzeko San herri indigenari gune babestu bateko ur iturri baterako sarbidea itzultzeko. Kanadan, garai batean urerako eskubidearen aurka bazegoen ere, NBERen ebazpenak iraultza ekarri zuen politketan. 2015etik, Kanadako gobernuak elkarlanean aritu da gobernu indigenekin, ura edangarria duen azpiegitura segurua eraikitzeko 98 komunitaterentzat, ura irakiteko gomendioa baitzuten aspalditik.

Ingurumen osasungarrirako eskubidea mundu osoan aintzatesteak berekin ekarriko luke onartzea gure bizitzak, osasuna, ongizatea eta duintasuna planeta eder honen osasunaren mende dagoela. Gizakia ez dago naturatik bereizita, ez eta haren gainetik ere, baizik eta harekin estu eta era korapilatsuan ehunduta. DNA partekatzen du planeta honetako izaki bizidun guztiekin. Natura ez da gizakiontzako baliabideen biltegi huts bat, ustiatzeko zai dagoena, baizik eta komunitate bat, eta sekulako zortea da haren parte izatea.

Estatuek ez lukete ingurumen seguru, garbi, osasungarri eta jasangarrian bizitzeko giza eskubidea aintzatesi bakarrik egin behar, betearazi egin beharko lukete. Horrek esan nahi du giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia erabili beharko litzatekeela klima krisiari, biodibertsitatearen kontserbazioari, aire kutsadurari eta munduko uraren krisiari aurre egiteko. Erregai fosilak baztertu eta energia berriztagarriak erabili behar dira, ahal bezain arin. Errespetatu egin behar dira herri indigenek beren kulturak eusten dituzten lurak, urak eta espezieak izateko duten eskubidea, eta lurraren eta uraren % 30 babestu behar dira 2030erako. Ekonomia zirkularra sortu behar da, zeinetan gizakiak egiten eta erabiltzen duten guztia berrerabil, birzikla edo konposta daitekeen, era seguruan.

COVID-19arekin, gizateria oso garesti ordaintzen ari da zientzialarien ohartarazpenei entzungor egin izana. Ezin da hanka sartze bera egin, eta klima zientzialariei eta ekologistei ere entzungor egin. Ez da berandu munduko ingurumen krisiari erantzuteko, baina denbora agortzen ari da.

Ez bada giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia erabiltzen biosfera babesteko, etorkizuneko belaunaldiak mundu ekologikoki pobretu batean biziko dira, gizakion ongizaterako ezinbestekoak ziren naturaren ekarpenik gabe, gero eta pandemia gehiagok jotakoan, eta ingurumen injustizia gero eta sakonagoek bultzatutakoan.

Giza eskubideak eta natura pandemiaren osteko suspertzean erdigunean jartzea lortzen bada, gizateriak etorkizun bidezko eta jasangarria eskuratu ahalko du, jendea zoriontsu eta osasuntsu bizi dadin, eta naturarekin harmonian bizi ditzan bere bizitza.

Eskerrik asko guztioi, maite dituzuenak eta guztion etxea den planeta babesteko egiten duzuen guztiagatik.

Hitzaldia ikusteko, egin klik nahi duzun hizkuntzan: [euskaraz](#), [gaztelaniaz](#), [ingelesez](#).



The Phoenix journey: ingurumen eta inklusio sozial arloko politiken koprodukziorako ikasketa prozesua

Georgia Karavangelik eta **José Ruiberriz de Torres Lópezek** idatzi eta emandako hitzaldia.
MedTOWN koordinatzaileak. ENI CBC **Med Programme**

MedTOWN proiektua (“Gizarte arloko politiken koprodukzioa ekonomia sozial eta solidarioaren arloko eragileekin, pobreziaren, desberdintasunen eta gizarte-bazterkeriaren aurka egiteko”) Europar Batasunak Auzotasunerako Europako Tresnaren bitartez finantziatutako lankidetzaren proiektua da, mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzea helburu duena, 2014-2020rako Mediterraneoko Arroa Programaren esparruan (ENI CBC Med). Sei herrialdetako (Espainia, Grezia, Palestina, Jordania, Tunisia eta Portugal) bederatzi erakunde bazkidek hartzen dute parte proiektuan. Guztira, 3,4 milioi euroko aurrekontua du (programak egindako ekarpenaren % 86,5), eta 48 hilabeteko iraupena izango duela kalkulatu da (2023ko irailera arte).

Proiektu bat baino gehiago, **MedTOWN** gizarte-berrikuntzarako ekimen bat da, ekonomia sozial eta solidarioaren papera indartzea helburu duena, **koprodukziori eta ekonomia zirkularrari** buruzko ikerketa eta esperimentazioaren bidez. Proiektuak moneta publiko osagarriak erabiltzearen alde egiten du, kolektibo zaurgarrienei zerbitzu sozialak eta finantza-laguntzak eskaini ahal izateko. Giza eskubideak eta ingurumena errespetatuko dituen garapen eredu justuagoa eta iraunkorragoa sustatzea da helburu nagusia.

Berrikuntza sozialari buruz ari garenean, egungo erakunde publikoek eta bestelako erakunde sozialek bete behar duten rolari buruz ere hausnartuko da.

Laurogeiko hamarkadaren amaieran eta mende honen lehen hamarkadaren hasieran, praktikan, hainbat muga jarri zitzaizkion ikuspegi parte-hartzaileari, eta, horren ondorioz, haziz joan dira erakundeekiko deslegitimazioa eta mesfidantza zein krisi eta garai-aldaketan aurrean erakundeek duten erantzuteko gaitasun faltaren ustea.

Dokumentu honetan jasotzen diren berrikuntza-dinamiken bitartez, erakundeetan agortzen ez den ikuspegi publikoa bultzatzen da, neurri handiagoan ala txikiagoan. Hala, dinamika horiek aplikatuz, uste da aurrerapausoak eman daitezkeela hiri-politiken koprodukzioan. Eta, horretarako, beharrezkoa da udalen egungo rola aldatzea, eta arazo kolektiboak konpontzeko egungo monopolio-posizioetik, erabakiak beste eragile batzuekin batera hartzea pasatzea, guztiak baldintza berdinetan, baina, bistan denez, baliabide desberdinekin. Eragile bakoitzak dagozkion erantzukizunak bere gain hartzeko arazo handi bat dakar horrek, logikoa denez, eta, administrazioek herritar guztiak berdintasunean babestu eta zerbitzatzeko duten betebeharra lausotzeko arriskua, nolabait.

Baina, hala eta guztiz ere, beharrezkoa da galdera hauek egitea: Nola konponduko ditugu, krisi eta garai-aldaketa betean, hiri bateko bizitzan sortzen diren arazo kolektiboak, ahulduta dauden erakunde batzuekin? Posible da lan hori egitea hiritarrak inplikatzuz eta irtenbide berritzaile eta sortzaileak bilatuz?

Politika publikoak eraginkorrago bihurtzean datza gure ikuspegi nagusia, batetik, gizarte-zerbitzu batera bideratutako gastu publiko bakoitzeko inpaktu sozioekonomiko biderkatzaileak ahalbidetuko dituzten tresnak eta ereduak sortuz. Bestetik, zerbitzu-hornitzaile, **erabiltzaile eta tokiko komunitateez osatutako elkarteak** sortuz, hartara, erakunde publikoak gizarte-zerbitzuen bideratzaile –eta ez hornitzaile huts– bihur daitezzen, eta erabiltzaileak gizarte-zerbitzuen eragile aktibo gisa har daitezzen, eta ez erabiltzaile huts gisa, gizarte-zerbitzuen diseinuan eta prestazioan parte hartuz.

Nola eraman daiteke aurrera eduki teoriko hori praktika sozial konkretura?

Erakunde sozialen hainbat arlo errotik berrantolatzeke proposamen zehatzak bultzatuz, «beste aukera batzuk sor daitezke botere-egiturek egun dituzten pribilegioen eta eragiten dituzten desberdintasunen aurrean». «Espazio publikoan, kalean, dauden erakundez kanpoko irtenbideei jarri behar zaie arreta, nahiz horien helburua ez izan presioa egitea edo egungo esparru instituzionala sakonki aldatzea».

MedTOWN proiektuak garrantzi handia izan du **Bela Flor Agroforest** ekimenaren arrakastan. Hala, proiektuaren bitartez, bazkide berriak, komunitateko kideak (gizarte nahiz ingurumen arlokoak) eta baliabideak lortu eta elikagaiak eskuratu ahal izan dira, eta, aldi berean, espazio natural seguru bat sortu da bizilagunen arteko harremanetarako.

Boluntarioen Ostegunez gain (astean behin nekazaritza- eta baso-komunitateari bereziki eskainitako tarteak), MedTOWN proiektuaren taldeak arotzeriako tailerrak antolatu zituen hilean behin. Hala, tailer horien bidez, zurezko eserlekuak egiteko eta kanpoko espazioa hobeto erabiltzeko biltzen zen komunitatea.

Tokiko elkarteek utzitako tresnak erabiliz, bizilagunek (haur nahiz heldu) diseinu sinpleko eserlekuak egin zituzten alferrik galdutako zura erabiliz. Modu horretan, haurrek aire zabalean ikasi ahal izan zuten, eta zaharrenek aukera izan zuten etxetik atera, eta kanpoan segurtasunez elkartzeko.

Modu horretako ekimen txikiak oso garrantzitsuak dira jendea elkartu, elkarlanean aritu eta, aurrerago, MedTOWN proiektuaren bitartez, komunitatean zer gauza egin daitezkeen ikusteko.

Horrez gain, hainbat ikasketa-prozesu kolektibo bultzatzen ditu proiektuak, parte hartzen duen herrialde bakoitzeko ikasketa-komunitate bat (CoP) eta Mediterraneoko arro osoko beste ikasketa-komunitate bat sustatuz. Berrikuntza sozialerako praktikak bultzatzeko, ikasketa soziala, kontzientziazioa, ekintza kolektiboa eta mobilizazioa erabiltzen dira.

Ikasketa-komunitate edo CoP horietan, elkarrekin ikasi, esperimendu eta berritzeko gogoz dauden pertsonak biltzen dira. CoP horietako kideak zerk erakartzen dituen aztertzen ari gara MedTOWN proiektuaren bidez; komunitate horiek nola antola daitezkeen modu eraginkorrean eta nola izan dezaketen eragina. Horrez gain, MedRISSE proiektuaren barruan “CoPen ekosistema” bat sortzea pentsatu dugu. Hala, CoP desberdinen arteko lankidetzaren multilateralaren onurak eta eskakizunak identifikatu nahi dira, pieza bat bestearekin josiz, ikuspegi sistemiko zabalagoa izateko eta gizartea eraldatzeko bideak bilatzeko.

Fenixaren bidaia

Prestatzaileak trebatzeko ikastaro arrakastatsu batekin (Training of Trainers, ToT) ekin genion MedTOWNen trebakuntza-prozesuari. Online izan zen ikastaroa (2020ko urriak 5tik 15era), **Red de Transición** elkarteko aditu talde baten gidaritzapean. Ikuspegi teoriko-praktiko berri-tzailea eman zioten ikastaroari, tokiko prestatzaileak lurralde bakoitzeko aldaketa-eragile gisa eta **Tailer Nazionalak** (TNak) diseinatu eta lantzeko lider gisa prestatzeko helburuarekin. Aldi berean, MedTOWN proiektuko gainerako jarduerak lekuan bertan martxan jartzeko laguntza eskaini zieten.

Hain zuzen, “**Fenixaren bidaia: koprodukzio ekosozialerako bide eraldatzaileak**” programa komunean oinarrituko dira **TNak**. Prestatzaileak trebatzeko ikastaroan (ToT) proposatu zuten programa hori, pausoz pauso, eduki teorikoetan eta aplikazio praktikoetan bidaia bat eginez, jasotako ezagutzak tokiko eskalara eramateko.

Ikastaroa diseinatu zuen taldeak metafora bat erabili zuen programaren gaia lantzeko; feniziarren kultura eta Fenix hegaztiaren kondaira, hain zuzen.

Feniziarren kultura bakezale eta indartsua Mediterraneoaren kostaldeko herrialde guztietara zabaldu zen. Batzuek diotenez, feniziarren zibilizazioak Fenix hegaztiaren mitoan du jatorria. Fenix hegazia berriz jaio zen, suntsitutako zibilizazio zaharraren errautsetatik.

- 1 Observing the Ashes: Gizakion beharrak eta gizakiaren garapen iraunkorra
- 2 Watching the horizon: Politika eta zerbitzu sozialen koprodukzioa
- 3 Realising our essence: Sistema ekonomikoak eta ekonomia sozial solidarioa
- 4 Spreading the wings: Antolakuntza arloko garapen eta teknologia soziala
- 5 Taking flight: Ekintza bidezko koprodukzioa

MedTOWN proiektuaren barruko gaitasunak garatzeko programaren bitartez, prozesu eguneratu, dinamiko, fresko eta iradokitzailera bultzatu nahi da, parte hartzen dutenek gaitasun eta abileziak landu ditzaten, bizi diren lekuetako beharrei erantzungo dieten egitura sozioekonomiko berriak sortzeko, leku horietako ingurumena kontuan izanez, eta, beraz, natura mehatxatu gabe eta giza ongizatea naturaren muge barruan bilatuz.

Esan bezala, programa horretan, Fenix hegaztiaren kondaira eta kultura feniziarra erabili dituzte metafora gisa, arlo sozial eta ekonomikoan harremanak izateko modu berriak sortzeko helburuarekin, eta, gure lurraldeetan bizimoduari buruz hausnartzeko orduan, gizakiaren eta naturaren ongizatea kontuan izanez.

Proiektuan parte hartzen duten herrialde guztietan (Palestina, Jordania, Tunisia, Grezia, Portugal eta Espainia) **tailer nazionalak (NW) egingo dira** datozen hilabeteetan. Tailer horiek izango dira MedTOWN **proiektuaren ekintza nagusienetakoa**. Prestatzaileak trebatzeko bost ikastaro (ToT).

ORen bidez, ur-jauzi efektua eragin nahi da proiektuaren testuinguruan sortutako informazio teoriko-praktikoa zabaltzeko. Esan bezala, proiektuaren bidez, koprodukziorako prozesuak indartu eta martxan jarri nahi dira, politika publikoak eta zerbitzu sozialak hobetzeko helburuarekin. Prozesu horien bidez, lurralde-testuinguru zehatz bakoitzeko pertsonen beharrei erantzun nahi zaie, ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik.

Tailer nazional bakoitza bakarra izango da edukiz eta metodologiak; izan ere, lotura estua izango du MedTOWNek herrialde bakoitzeko zerbitzu sozialen koprodukziorako zehazturiko Ekintza Erakusgarriekin. Tailer guztiak doakoak izango dira, bertako hizkuntzan eskainiko dira, eta online, offline edo formatu mistoan egin ahal izango dira, bakoitzaren berezitasunen arabera.

1. Gizakion beharrak eta gizakiaren garapen iraunkorra

1. pausoa, gizakion ongizaterako eta bizimodu egokirako oinarritzakoak diren beharrak aztertzen dira, **giza garapen iraunkorra gure planetak ezarritako mugen barruan egin beharreko bide gisa ulerturik**.

Erresilientzia sozioekologikoa funtsezko ezaugarri sistemiko bihurtzen da, behar horiei aurre egin, eta, aldi berean, egun dauden gizarte eta ingurumen arloko erronkei erantzun bat emango dieten mekanismoak diseinatzeko. Modulu honetan, gizarteak eta gizarteek ingurumenarekin duten harremana aztertzeke hainbat ikuspegi eta esparru global landuko dira.

2. Zerbitzu sozialen eta politika publikoen koprodukzioa

Lankidetzak publiko-soziala eta publiko-pribatua haziz joan da azken urteetan, **politika eta zerbitzu sozialen bitartez administrazioak gizakion beharrak asetzeko** duen gaitasuna zabaltzeko irtenbide gisa, ongizaterako eta ondasun komunen zaintzarako erretoretza-hitzarmenetan oinarrituriko **eragile anitzeko lankidetzak** mekanismoen bitartez.

Hitzarmen horiek arrakastatsuak izateko, erantzukizunak argitzeko eta erabakiak modu garden eta arduratsuan hartzeko gobernantza-eredu optimoak diseinatzen dira. Bi elementu horiek funtsezkoak dira koprodukzio prozesuetan.

2. pauso gisa, politika publikoen eta zerbitzu sozialen koprodukzioaren printzipioak, motak eta oinarriak aurkezten dira, eta lankidetzak publiko-sozialak arrakastaz aurrera eramateko giltzarriak eztabaidatzen dira.

3. Ekonomia sozial eta solidarioa

Egungo sistema ekonomikoa ekonomiaren eta interesen orekan oinarritzen da. Sistema horretatik **gutxi batzuek bakarrik ateratzen dute etekina**, gizartearen zati handi baten ongizatearen kontura eta, **iraunkorrek, justuak eta berdintasunekoak ez diren ekoizpen-eta kontsumo-ereduen bidez, ekosistemak suntsitzearen kontura**. Hala eta guztiz ere, badira **personen ongizatea, justizia soziala eta ingurumenaren iraunkortasuna lehenesten dituzten eredu ekonomikoa**; etekin ekonomikoren orde, bizitza jartzen dutenak erdigunean.

Modulu honetan, hainbat eredu ekonomikoko alternatibo aztertuko dira, eta, bereziki, ekonomia sozial eta solidarioa, koprodukzio prozesuetarako esparru egoki gisa.

4. Teknologia soziala eta antolakuntzaren lanketa

Gizakion artean eta ingurumenarekin duden harremanetan oinarritzen da sistema sozioekonomikoa. Hala, antolakuntza-egiturek hainbat arlo baldintzen dituzte; besteak beste, justizia soziala, berdintasuna eta ingurumenaren iraunkortasuna. **Gobernantza** kontzeptuaren barruan biltzen dira egitura sozialen funtzionamendua ezaugarritzen duten elementu guztiak: boterea erabiltzeko eta mailaz igotzeko dinamikak, erabakiak hartzeko prozesuak, parte hartzeko mekanismoak, etab.

Modulu honetan, gobernantzaren ezaugarriak aztertuko dira, eta koprodukzioarako prozesu kolaboratiboak bultzatzen dituzten egitura sozialak bideratzeko gaitasunetan sakonduko da.

5. Koprodukzioa ekinean

Berrikuntza ekosozial deitzen zaio **personentzat eta/edo ingurumenarentzat etekin bat** lortzea helburu nagusi duten jardura sozioekonomikoa diseinatzeko **prozesuari**. Hala, berrikuntza-prozesuen bitartez, **lankidetzak publiko-sozialerako edo publiko-pribaturako mekanismoak** aztertu eta kodiseinatu daitezke, eguneroko bizitzako beharrei erantzuteko, politika sozialen koprodukzioaren bidez eta zerbitzu publikoak hobetuz.

Modulu honetan, berrikuntza ekosozialen motak eta metodoak aztertuko dira, eta, koprodukzioarako prozesu berrien bidez, gure komunitate eta lurraldeetako erronka eta beharrei erantzuteko baliagarriak izan daitezkeen kasu praktikoak aztertuko dira.

Proiektu pilotuko ekimenei bideratutako laguntza

OREtan sorturiko ezagutzez gainera, parte hartzaileek kidekoen laguntza jaso ahal izango dute tokiko koprodukzioarako ekimen pilotuak martxan jartzeko. Proiektu horiek MedTOWN proiektuaren bitartez finantzatu ahal izango dira. Hala, proiektuan parte hartzen duten 6 herrialdeetako 10 proiektu pilotuk jasoko dute laguntza, gutxienez. Zehazki, 290.000,00 euroko aurrekontua bideratuko da diru-laguntza horietara. 2021eko amaiera edo 2022ko hasierarako aurreikusten dira proiektu pilotuak finantzatzeko proposamenen deialdiak.

Adituek gida bat diseinatu dute MedTOWN proiektuak proposatzen dituen **TNak** bultzatzeko, **koprodukzioaren arloko prestakuntzarako eta ikasketarako materialak zabaltzeko estrategia gisa**, eta, modu horretan, Mediterraneoan politika publikoak sortu eta zerbitzu sozialak indartzeko.

“**Dokumentu bizi**” bat izateko helburuarekin sortutako gida da, eta **zenbait aholku eta tresna** eskaintzen ditu tokiko prestatzaileei beren herrialdeetan tailer nazionalak (**TN**) arrakastaz planifikatzen, diseinatzen eta bideratzen laguntzeko. Horrez gainera, Prestatzaileen Komunitate Praktikoaren barruko hartu-emana indartzeko lan-dokumentua da, jasotako ikasketak eta parte-katutako esperientziak biltzen baititu.

Hitzaldia ikusteko, egin klik nahi duzun hizkuntzan: [euskaraz](#), [gaztelera](#), [ingelesez](#).



Ingurumenaren eta giza eskubideen inguruko hainbat hezkuntza-esperientzia herritarrentzat

Mahai-inguru honetan parte-hartzaile hauek izan ziren: **Amaia Otazo Aseguinolaza**, **Kutxa Ekoguneko Gazte Ekoliderrak** proiektuaren koordinatzailea; **Leire Rodríguez Zubiaurre**, **Uliako Lore-Baratzak** elkarteko kidea; eta **Maidar Arnaiz Igartua**, **Setem Hego Haizea** gizarte-eraldaketarako hezkuntza-teknikaria

Kutxa Ekoguneko Gazte Ekoliderrak proiektuaren helburua gazteen artean (18-30 urte) ekolidergoia garatzea da. Jasangarritasunean eta bizitzarako lidergoan oinarritutako prestakuntza-ibilbide bat da. Zalantzarik gabe, klima-krisia taldean kudeatzea izango da datozen urteetako erronka. Alde horretatik, proiektu honek gizartearen eragile aktiboak prestatzen lagunduko du, praktikarako eta pentsamendu kritikorako tresnak erabiliz, parte hartzen duten profilen arteko ezagutza-trukea sustatzen baitu.

Uliako Lore-Baratzak proiektua Uliako parke-lorategi bat da, 2015ean sortua, eta bizilagunek kudeatzen dute. Proiektu horri Europako Bauhaus Berria 2021 saria eman zioten. Helburua da herritarrek espazio publikoen kudeaketan parte har dezaten sustatzea eta eraldaketa sustatzea, hau da, herritarren alde eta haientzat den proiektu bat gauzatzea. Hala, baratze komunitario bat dute, bai eta tokiko nekazariekin lotutako kontsumo-talde bat ere, tailerrak antolatzen dituzte, landareak trukatzeko merkatuak, eta abar.

Setem Hego Haizearen Balioen faktoria proiektua gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren barruan kokatzen da, eta prestakuntza hori hilero ematen da, irailtik maiatzera. Ekoizpenaren eta kontsumoaren inguruan hausnartzea du helburu, baita inpaktuen eta alternatiben inguruan hausnartzea ere, ikuspegi feministatik. Besteak beste, gai hauek garatu dira: ehungintzako ekoizpen- eta kontsumo-eredua, finantza etikoak, bidezko merkataritza, kontsumoaren eta indarkeria matxistaren arteko lotura, eta abar.

Giza eskubideak eta horien garapena

Hiru proiektuak **jasangarritasunaren** ikuspegiarekin lotuta daude, eta ikuspegi hori, berriz, ingurumen- eta giza eskubideekin lotuta dago. Gainera, ekimen horiek gauzatzeko ezinbestekoak dira parte hartzeko eskubidea eta adierazpen-askatasuna, bai eta informaziorako eskubidea ere. Nabarmendu behar da beste herrialde batzuetako nekazarien eskubideak ere aitortzen direla.

Eguneroko jarduera eta praktiketan sustatzen eta gauzatzen dira oinarritzko giza eskubide horiek. Adibidez, Uliako Lore-Baratzak proiektuan, giza eskubideen bermeari dagokionez errealitate oso

desberdinak dituzten pertsonak nahasten dira, eta horiek trukearen bidez sustatu ohi dira, batez ere ezagutzen trukearen bidez: askotariko kulturak, jatorriak, belaunaldiak, familiak...

Halaber, Setem Hego Haizean funtsezkoa da giza eskubideei heltzeko ikuspegi lokal-globala izatea. Produkzio- eta kontsumo-logikak lantzean, oinarrizkoa da horiek beste lurralde batzuetako giza eskubideetan zer ondorio dituzten aztertzea. Tokiko eremuari dagokionez, autokudeaketa kolektiboan eta herritarren mobilizazioan jartzen da arreta, kontsumo-eredua aldatzeko.

Gazte Ekoliderren programan hurrengoaz ohartu dira: gaur egungo gazteek askoz garatuago dutela jasangarritasunaren ikuspegi holistikoa aurreko belaunaldiek baino. Horren ondorioz, pentsamendu kritikorako irekiago daude, eta horrek eskubideak sustatzen laguntzen du. Egia da, hala ere, gaur egun arrisku handiagoa dagoela gehiegizko informazioa izateko edo iturriak fida-garriak ez izateko.

Eraldaketaren garrantzia, kolektibitatea eta arrakasta bermatzeko

Denborak aurrera egin ahala, iraupen luzeko prestakuntzek ez dute arrakastarik izan; izan ere, gero eta konplexuagoa da familia- eta lan-bizitza uztartzea eta parte-hartzaileen konpromisoa denbora luzez lortzea. Horrela, bada, urteen poderioz, proiektuek aldatu egin dute formatua (presentziala eta duala, presentziala/online), forma (hitzaldiak, tailerrak edo ikastaroak), aldizkotasuna (astero edo hileroko), bai eta ibilbideen eskakizuna ere (zenbaitek dedikazio handiagoa eskatzen dute, eta beste zenbait malguagoak dira). Hori guztia proiektuak taldean gara daitezen egin da, mobilizazioan datza-eta eraginaren eta eraldaketaren arrakasta.

Sentsibilizatutako jendea ez ezik jende gehiago ere erakartzeko, funtsezkoa da gizartearen interesekoak diren egungo gaiak garatzea, egiten den lana erakustea eta, batez ere, **ikuspegi kolektiboa duten motibazioetatik, emozioetatik eta interesetatik erakartzea jendea**. Parte-hartzearen arrazoi nagusietako bat une atseginak partekatzea eta izaki bakoitzak gizartea eraldatzeko duen gaitasuna aitortzea da. Hau da, "txikia" aktibatzea "handia" den horretan eragiteko, afektuzko loturaren bidez. Horretarako, funtsezkoa da harreman beroak sustatzea eta hurbiltzen den jendea motibatzea.

Amaitzeko, kolektibitatea eta **ahalduntzea** sustatzea funtsezko osagaiak dira herritarrek beren errealitatearen eraldaketan parte hartu nahi izan dezaten; izan ere, sistema batetik eta bestetik igaro ahala, gero eta gehiago aldatzen dira errealitate horiek. Hala ere, herritarrek ere parte hartzen dute egoerak hobetzen, herritarrei parte hartzeko espazio fisikoak ematen zaizkienean. Kasu horietan erakusten du aktibatze, lotze eta kudeatzeko duen ahalmena. Herritarrek kudeaketa publikoan parte hartzeari dagokionez, herritarren benetako parte-hartzea sustatzen duten politika publikoak behar dira; adibidez, antolatutako herritarren eskaerak modu formalean jasoko dituzten politika publikoak ezar litezke horretarako. Ezinbestekoa da ekimen horiek babestea, bultzatzea eta laguntzea; izan ere, erantzukizunetan heziz eta erantzukizunak hartuz eta frogatuz, herritarrak aktibatu egiten dira.

Egungo erronkak


Gaur egungo erronketako bat da **herritarrak mobilizatzea**, errealitatea eta haien errealitateak eraldatuko dituzten hazi txikiak ereinez. Ildo horretan, bide bat izan daiteke **kontsumo-ohiturak pixkanaka aldatzea**. Ekoizpen- eta kontsumo-sistema da giza eskubideak —bereziki emakumeen eskubideak— gehien urratzen dituen sistemetakoa bat, baina, hala ere, zaila eta gogaikarria da zenbait dinamikari itzuri egitea.

Beraz, kontsumo arduratsua izan liteke bideetako bat, baina gure lurraldean oraindik egiteko dago lan hori. Hala ere, **Saretuz** eta halako ekimenek indar handia dute eta zenbait ondorio nabari dira: hurbileko produktuak, ekologikoak... Era berean, COVID-19aren pandemiak tokiko kontsumoaren eta saltoki txikien inguruan kontzientziazten lagundu du. Horren guztiaren ondorioz,

kontsumoa gero eta arduratsuagoa eta jasangarriagoa da. Hala ere, lehen aipatu bezala, ideia hori oraindik ez da zabalduena herritarren artean.

Azkenik, gaur egun beste erronka hauek ere baditugu: errealitateaz jabetzea eta zer alternatiba logiko ekologiko nahi ditugun pentsatzea, gertuko pertsonekin konpromisoa hartuta, eta klima-krisiaren ondorioen aurrean blokeoa eta beldurra saihestea.

Hitzaldia ikusteko, egin klik nahi duzun hizkuntzan: [euskaraz](#), [gazteleraz](#), [ingelesez](#).



Ekopedagogia eta ekobakezetasuna hezkuntzaren giltzarri gisa


Carlos Muñiz Osoriok emandako hitzaldia.

Katedradun elkartua, Puerto Ricoko Universidad del Sagrado Corazón unibertsitatea.

“Erreferentziak APA formatuan aipatzen dira, baina orri-oinean, irakurketa arinagoa izan dadin.”

Aspaldi, Puerto Ricon, esklabotzatik ihes egiten zuten afrikar ondorengoek Piñoneseko (Loiza) mangladira ihes egiten zuten, ekosistema horretan zaila baitzen inor harrapatzea. Urteak joan, urteak etorri, afrikar ondorengo haiek han eraiki zuten beren komunitatea. Jakina da manglarrak funtsezkoak direla kostaldea babesteko, eta, horregatik, bertan ez esku hartzea erabaki zen. Hala ere, manglarra ez ukitzea, bat-batean, bertan bizi ziren pertsonak ez artatzea bihurtu zen: ez zuten edateko urik, oinarritzko hornidurarik, oinarritzko zerbitzurik... adibide honekin ingurumen-hezkuntza tradizionalaren ikuspegia islatu nahi da.

Giza eskubideak eta ingurumena beharrezko ikuspegi berri bat dira. Errealitatea hobeto ikusteko leiar berriak dira. Era berean, elkarren artean nahasten diren gizarte- eta ingurumen-gatazken ondorioz ikasitako ikuspegi bat dira, eta bizipenetatik bertatik egin behar zaie aurre. Horrela, bada, ingurumen-egoera batzuk gure bizitzetan eta gure izaki sozialean eragina izaten hasten direnean, begirada intersektional hori garatu egiten da eta ezinbestekoa bihurtzen da.



Muñiz Osorio, C. A. (2021). *Ecopedagogía y ecopacifismo como claves en la educación (Ekopedagogia eta ekobakezetasuna hezkuntzako giltzarri gisa)* [PowerPoint diapositiba hitzaldian aurkeztutakoa]. Giza Eskubideen aldeko Baliabide Pedagogikoen III. Mintegia: Ingurumena eta Giza Eskubideak, Donostia.

2000. urtean, Lurraren Karta oinarritzat hartuta, Brasilgo Instituto Paulo Freire institutuan lurraren pedagogia garatzen hasi ziren¹. Horrek ingurumena, ekologia eta gizartea biltzen dituen ikuspegi holistikoa dakar, eta onartzen du ez dagoela behin betiko formularik.

Ekopedagogia horretaz elikatzen da, eta, gainera, bakerako hezkuntza² ere kontuan hartzen du, bake positiboan, justizian, ekitatean, elkartasunean, tolerantzian eta bakearen kulturaren jartzen baitu arreta. Azken horren oinarritzko elementuak honako hauek dira: giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak, gatazkak modu baketsuan konpontzea, ingurumena babestea, genero-berdintasuna, lurralde-subiranotasunaren eta -osotasunaren errespetua, adierazpen-, iritzi- eta informazio-askatasuna, bizitzarekiko errespetua, indarkeriarik eza eta elkarrizketan eta lankidetzan oinarritutako hezkuntza.

Hortaz, Latinoamerikan sortu zen ekopedagogia, eta ingurumenaren eta gizakien aurkako indarkeriako giza ekintzak aztertzeko eta berraztertzeko hezkuntza-ekintza bat da. Pentsamendu kritikoan eta gizarte-eraldaketan oinarritzen da; zehazki, prozesuak aldatzeko gaitasunean, eta ingurumen- eta gizarte-justizia ditu helburu. Hori guztia, ingurumenarekiko indarkeriazko ekintzen eta gizartearekiko indarkeriazko ekintzen arteko loturak ulertuz, ekintza horiek guztiek bidegabekeriak, zapalketak, menderatzeak eta jasangarritasun-eza sortzen baitituzte.

Filosofia pedagogiko horren funtsezko elementuak honako hauek dira: planeta etengabeko bila-kaeran dagoen komunitate gisa; kontzientzia sortzea; samurtasunaren garrantzia, justizia sozio-kosmikoa, pedagogia biofilikoa, ezagutza partekatuak, begirada eta bihotza berriro hezteak, baita jasangarritasuna eta ekoprestakuntza ere.

Ekopedagogia ekobakezaletasunarekin bat dator, ekologismoa eta bakezaletasuna kontzeptu inbrikatu-erlazioan gisa proposatzen baititu. Funtsean, errealitateari begiratzeko ikuspegi edo modu bat da, aurreko paragrafoetan azaldutakoaren oso antzekoa.

Ekobakezaletasunaren hezkuntza-praxiari dagokionez, kontuan hartu beharreko hainbat elementu daude. Hasteko, gizakiaren ikuspegia hartu behar du kontuan **praxiak**, eta haren sormena³, intuizioa⁴, adimenak zein talentuak⁵, interesak eta motibazioak⁶, eta duintasuna zein aniztasuna⁷ nabarmendu behar ditu. Halaber, errealitatearen pertzepzioa integratu behar du, pertzepzio hori hautemangarria, aldagarria, interpretagarria eta jasangarria baita⁸. Gainera, kontzientziario sozioekologikoarekin eta ingurumen-kontzientziarioarekin inplikatu behar du, baita indarkeriarik gabeko hezkuntza-birbilakaerarekin eta bakearekin ere⁹.

Jarraitzeko, **hezkuntzak** berekin dakartza bizitzaren eta lurraren defentsaren balioak eta printzipioak¹⁰, funtsezko zaintza¹¹, askatasuna, justizia eta ekitatea¹², elkartasuna, tolerantzia eta lankidetzak¹³, baita dibertsioa eta gozamenak ere. Era berean, gizarte-alderdiaren pertzepzioa izan behar du, eta ezaugarri hauek eduki behar ditu: elkarrizketa enpatiko ez-bortitza¹⁴, gardentasu-

1 Gadotti, 2002, Instituto Paulo Freire institutua, Lurraren Karta, 2000 hemen: Muñiz, 2021.

2 Jarés, 1991, 1999, Yudkin, 2005, 2008, Pascual, 1989, 2000, 2005, Luque, Molina eta Navarro, 2000 hemen: Muñiz, 2021.

3 Freire, 2000, 2003, Calderón, 2009 hemen: Muñiz 2021.

4 Hostos, 1991, Freire, 2003 hemen: Muñiz 2021.

5 Pascual-Morán, 2005, Clark, 2002 hemen: Muñiz, 2021.

6 Pascual-Morán, 2005 hemen: Muñiz, 2021.

7 Lurraren Karta, 2000. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, 1948 hemen: Muñiz 2021.

8 Freire, 1997, 2009, Álvarez, 2006 hemen: Muñiz 2021.

9 Freire, 1975, 2003, 2005, Schipanni, 2002, Jarés, 1991 hemen: Muñiz, 2021.

10 Nerbum y Mengelkohch, 1991, López-Tosado, 2009 hemen: Muñiz, 2021.

11 Boff, 2002 hemen: Muñiz 2021.

12 Lurraren Karta, 2000 hemen: Muñiz 2021.

13 Calderón, 2009 hemen: Muñiz 2021.

14 Rosenberg, 1999, Calderón, 2009 hemen: Muñiz 2021.

na¹⁵, parte-hartzea eta adostasuna¹⁶, bizitza pribilegiatzea¹⁷ eta askatasunaren mugak¹⁸. Era be-rean, adimen eta talentu desberdinak aintzat hartzea komeni da, eta horrek ikuspegi zabala, bar-neratzailea eta konplexua eskatzen du¹⁹, baita talentuak garatzea²⁰, produktibitate sortzailea²¹, adimen anizkoitzak²² eta alderdi emozionala, espirituala zein morala ere²³. Amaitzeko, hezkun-tzak azalpenen eraikuntza²⁴, munduaren ulermena²⁵ eta bidegabekeriaren zein ekitategabetasunen aurkako sentsibilitatea²⁶ garatu behar ditu.

Horrela, bada, ekobakeak hainbat ideia biltzen ditu, hala nola bake positiboa, gatazkaren bidez-ko hazkundera eta garapena, indarkeriaren pertzepzioa, zuzena, egiturazkoa eta kulturala²⁷, baita ekoetxea kontzeptua ere, etxe komuna eta GAIA teoria²⁸ aitortzeko bidea eman zuena. Era be-rean, gehiegizko produkzio- eta kontsumo-sistemak eta desberdintasun ekonomiko eta soziala aztertzen dituen ikuspegi sozioekologikoa eta ingurumen-ikuspegia biltzen ditu²⁹. Azkenik, pen-tsamendu horrek honako elementu hauek hartzen ditu kontuan: errealitatea, gizarte konstruktua gisa; eraldaketa eta berreraikuntza; baita aniztasuna ere ikerketa-metodologietan³⁰.

Halaber, ekobakeak arlo sozialean eta kulturean jartzen du arreta, gizakiaren prestakuntza osoa eta indarkeriarik gabeko ekintza zibila gauzatuz³¹, eta alderdi politikoa eta ekonomikoa ere na-barmentzen ditu, baita herrialdeen arteko tentsioak eta eraginak, hezkuntzaren kontrola, sistema ekonomiko ekozida eta genozida eta produkzio-sistema alternatiboak ere³². Ingurumenari eta eko-logiari ere erreparatzen die, kontzeptuak bereiziz, gizartean duten eragina integratuz eta osotasun ekologikoaren ikuspegia gauzatuz³³. Azkenik, ekobakeak hainbat kultura-adierazpenen, jakintza-i-turrien eta erlijioek lurrerako duten betebeharraren bidez hartzen du kontuan espiritualtasuna³⁴.

Ekobakezaletasunerako planteatzen den hezkuntza-estrategiaren eredu-tako bat TIERRA (Tiempo, Experiencias, Reflexión-acción, Reflexión-evaluación) estrategia da. Lehenik eta behin, testuingurua, beharrak, interesak, jakintzak eta abar aztertzeko esplorazio denbora. Horrez gain, esperientzia dialogikoak, hausnarketa-ekintza eta hausnarketa-ebaluazio mailak daude.

Programa eta kanpamentu ekobaketsuak aplikatu ondoren, haurtzaroan eta nerabezaroan lor-pen esanguratsuak antzeman ahal izan dira, hala nola aldaketa espontaneoak portaeran eta familia-ingurunean, komunikazio ez-biolentoa eta enpatikoa erabiltzea edo motibazio-adieraz-penak modu ez-biolentuan azaltzea, protestatzeko eta proposatzeko orduan: esate baterako, horixe gertatu zen Puerto Ricoko metropoli-eremuko eskola batean antzerki-programa ixteagatik egindako erakustaldi edo protesta baketsu batean.

15 Lurraren Karta, 2000 hemen: Muñiz 2021.

16 Briggs, 2000, Pascual, 2003 hemen: Muñiz, 2021.

17 Boff, 1996, Hildur, 2001 hemen: Muñiz 2021.

18 Freire, 2000, Vogel y Gomides, 2005, Morin eta Humboldt, 2008 hemen: Muñiz, 2021.

19 Freire, 2006, 2010, Álvarez, 2006 hemen: Muñiz 2021.

20 RensRenzulli, 1995 hemen: Muñiz 2021.

21 Renszulli, 1995, Pascual, 2005 hemen: Muñiz, 2021.

22 Gardner y Louve, 2008, Kellert eta Wilson, 1992, Meyer, 1998 hemen: Muñiz 2021.

23 Goleman, 1995, Salovey, 1998, Coles, 1997: Pascual, 2005 hemen: Muñiz, 2021.

24 Alvarez, 2006, Riestra, 2001 hemen: Muñiz 2021.

25 Freire, 2000, 2003 hemen: Muñiz 2021.

26 Muñiz, 2021.

27 Jarés, 1999, Calderón, 2009, Freire, 1986 hemen: Muñiz, 2021.

28 Gadotti, 2002, Hildur, 2001 hemen: Muñiz, 2021.

29 Íbidem.

30 Aledo, 2002 hemen: Muñiz 2021.

31 Aledo, 2002, Pascual-Morán, 2003 hemen: Muñiz, 2021.

32 Mello, 2000, Lubbers, 2005, Marsechi y Sotello, 2002, Mollison, 2009, Alvarez eta Banal, 2008 hemen: Muñiz 2021.

33 Mello, 2000, Lurraren Karta, 2000 hemen: Muñiz, 2021.

34 Boff, 1996, Bradley, 1993 hemen: Muñiz, 2021.


Hona hemen ekoaktibismorako baliabide pedagogiko batzuk:

- **Guía para el desarrollo de una ecología para la paz (2000):** formalki edo informalki ingurumenari buruz hezten duten pertsona guztiei zuzendutako hezkuntza-materiala da. Helburua da hezkuntza, kontzientziarazioa eta ingurumen-ekintza zabaltzea eta sustatzea, edozein lekutan eta edozein hezkuntza, gizarte, ekonomia, politika, erlijio edo kultura mailatan. Egilea: Carlos A. Muñiz Osorio.
- **¡EcoActívate! (2011):** txango ludiko-didaktiko ekobakezaleak garatzeko jarduerak aurkezten ditu. Egilea: Carlos A. Muñiz Osorio.
- **Beto el Pez Beta. Historia, actividades y guía para educadores y educadoras (2011):** curriculum aberasteko tresna didaktiko ekobaketsua: kontzeptualizazioa, diseinua eta dibulgazioa. Egilea: Carlos A. Muñiz Osorio.
- **¡Exploremos tu mundo natural! (2011):** haurren profil naturalista oinarritzko mailan garatzeko galderen eta jardueren gida. Egilea: Carlos A. Muñiz Osorio.
- **Buenas Prácticas de Cultura de Paz. Práxis Educativa Ecopacifista. Cátedra UNESCO de Educación para la Paz (2017):** ikuspegi ekopedagogiko batetik, material honek natur zientzien arlo jakin batzuen ikaskuntza erraztu nahi du. Motibazioa giza espezieak naturaren aurrean duen jarrera kosifikatzailearen ondorioei buruz kontzientziatzea da. Datu zientifikoak, jarduerak eta sentimenduak oinarritzat hartuta, ekosistemen eta gizaki gisa Lurraren bizitzan dugun paperaren ikuspegi integratu bateranzko lana jorratzen da. Egilea: Carlos A. Muñiz Osorio eta Cátedra UNESCO de Educación para la Paz, Universidad de Puerto Rico unibertsitatea.
- **Escenas. Radiografías artísticas de manifestaciones de violencia y paz (2021):** *Radiografías artísticas* (erradiografia artistikoak) proiektuaren zortzi urteko ibilbidearen inguruko gogoeta-mapa bat aurkezten da. Gida hau maila ertaineko eta goi-mailako irakasleei, kultura-kudeatzaileei eta bideratzaile komunitarioei zuzenduta dago, baldin eta antzerkia erabili nahi badute indarkeria prebenitzeko kontzeptuei heltzeko, hala nola ekologia jasangarriari, *Lurraren Gutunari*, giza eskubideei, komunikazio enpatikoari, erabakiak adostasunez hartzeari, iraunkortasunari eta bakea eraikitzeari. Eszena egituratuta dago gida. Eszena bakoitzean azaltzen dira proiektuaren jarduera nagusiak. Eszena bakoitzak honako atal hauek ditu: a. Bileraren laburpena, b. Kontzeptuak eta ideiak, c. Antzerki-trebetasunak, d. Helburuak, e. Materialak, f. Jarduerak, g. Jardueren eta orduen deskribapena eta h. Alertak. Gainera, eszena guztiek dituzte topaketetako prozesu eta jarduera batzuk erakusten dituzten irudi eta argazkiak. Abestiak eta beste hezkuntza-material batzuk eskuragarri jartzen dituen proiektuaren atarirako esteka ere eskaintzen da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aberasteko. Material horrek erakusten du hezkuntzak eta antzerkiak indar askatzailea dutela premiazkoa eta posiblea den beste bizimodu bat ahalbidetzeko. Egileak: Jessica A. Gaspar Concepción, Heriberto Ramírez Ayala eta Jenifer De Jesús Soto.
- **Ejemplos de creación de diversos recursos educativos en ecopedagogía y ecopacifismo:** webgunearen behealdean, hainbat material didaktikoren adibide batzuk ageri dira. Hainbat testuingurutan irakaskuntza-teknikak eta ikaskuntza-esperientziak eskaintzeko sortu ziren material didaktiko horiek, guztiak ere ekopedagogiarekin eta ekobakezaletasunarekin lotuta.

Hitzaldi osoa ikusteko, sakatu nahi duzun hizkuntza: [gaztelania](#), [ingeleza](#).

Erreferentzia guztiak hitzaldi honetakoak dira:

Muñiz Osorio, C. A. (2021eko urriaren 6-7). *Ecopedagogía y ecopacifismo como claves en la educación (Ekopedagogía eta ekobakezaletasuna hezkuntzako giltzarri gisa)* [Hitzaldia]. Giza Eskubideen aldeko Baliabide Pedagogikoen III. Mintegia: Ingurumena eta Giza Eskubideak, Donostia, Gipuzkoa, Espainia.





Klima Aldaketari buruzko Hezkuntza Bulegoa: trantsizio klimatikorako ekimen globala

Lydie Lescarmontierrek idatzi eta emandako hitzaldia. **UNESCOren Klima Hezkuntza Bulegoa** arduradun zientifikoa

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioak 2015ean Parisen antolaturiko Alderdien 21. Konferentziaz geroztik (COP21), herrialde askotako agenda politikoan sartu da klima trantsizioa edo, oro har, trantsizio ekologikoa, zeina gero eta zehaztasun handiagoz zirriboratu baita Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Adituen Taldeak (IPCC) jarraian eginiko txostenetan. 2020an, COVID-19ak eragindako pandemiaren inpaktu handiak interdependentzia ez ezik elkartasuna ere bistaratu du, baina, harekin batera, agertu da multilateralismoaren edo zientziaren aurkako jarrera nazionalista edo irrazionalik ere. Horrek erakusten du –eta, maiz, modu dramatikoan erakutsi ere– zer-nolako erronkak eta zailtasunak ageri diren trantsizio eraginkorra izateko klima arazoekin loturik.

Azken hamarkadan, halere, gero eta interes handiagoa piztu da klima aldaketari buruzko trebakuntza gai garrantzitsu bihurtu dadin hezkuntza sistemak mobilizatzeko eta haietan esku hartzeko. Hala, garapen jasangarriaren xede orokorragoaren funtsezko parte bihurtu da apurka-apurka. Garapen jasangarria 1987an sartutako nozioa da, eta harrezkero hazten joan da, harik eta Nazio Batuen 2030 Agendan elementu nagusi bihurtu arte. Nazio Batuen Erakundeak eta nazioarteko beste erakunde batzuek klima aldaketari buruzko hezkuntza garatzeko beharra hartu dute ardatz, erabakigarritzat baitute hezkuntza jarrerak han eta hemen aldatzeko, gaur egungoak zein hurrengo hamarkadetara begira. Aldi berean, ohartarazten dute ez dagoela halakorik hezkuntza sistema gehientsuenetan, ez Lehen Hezkuntzan, ez Bigarren Hezkuntzan, edozein izanik ere herrialdeen garapen maila.

2018an jarri zen martxan Klima Hezkuntzarako Bulegoa (KEB), klima aldaketari buruzko hezkuntza berri hori babesteko eta irakasleei trantsizio horri heltzen laguntzeko. Fundazioak zientziaren eta pedagogiaren artean falta den lotura sortzen du UNESCOren babesarekin, eta bitartekoak sortzen dihardu, herrialde garatueto zein garabidean dauden herrialdeetako irakasleei eta hezkuntza sistemei laguntzeko. Klima Hezkuntzarako Bulegoak trebakuntza eta garapen profesionaleko lantegiak antolatzen ditu mundu zabaleko hezitzaileentzat. Era berean, alderdi interesdunen sare handi bat sortu du, eta hura koordinatzen dihardu, klima aldaketaren aurrean erresilientzia bilatzen duten ekintzak zabaltzeko.

Klima aldaketa ezin da irakatsi ikasketa plan jakin bati gaineratuko irakasgai soil gisa; aitzitik, hainbat diziplinatan landu beharreko auzi transbertsala da. Era berean, erabat birpentsatu behar da irakaskuntza horri lotutako pedagogia, dela ikasleek beren pentsamendu kritikoa landu ahal izateko komunikabideetan ageri den informazio oldearen aurrean, dela lanari ekiteko, hori baita *ekoantsietateari* aurre egiteko modurik onena. Arrazoi horiek direla eta, Klima Hezkuntzarako Bulegoak baliabide multzo bat proposatzen du, eta ikerketan (eta, beraz, esperimentazioan) oinarritutako pedagogia ez ezik proiektuetan funtsaturiko ikuspegia ere baliatzen du. Lehenbizikoari esker, ikasleek beren kabuz aurkitzen dituzte arazoaren soluzioak, ikertzaileen ikuspegia ulertzen dute eta, hortaz, hobeto balioesten dute zientzia –eta, bereziki, zientzia klimatikoa–. Baina lagungarria da, orobat, ikasleak irakaskuntzan gehiago inplikatzeko ere, aktibo bihurtzen baititu.

Proiektuetan oinarrituriko ikuspegia baliatuz, ikasleek ikusten dute beren etorkizunaren eragile izan daitezkeela eta jardun dezaketela trantsizio ekologikoaren alde.

Azken txostenetan, IPCCk frogatu du lotura handia dagoela klima aldaketaren eta garapen jasangarriko helburuen artean. Kontrolatu ezean, klima aldaketa bateraezina izango da bizitzarako eskubidearekin eta elikadura egokia izateko eskubidea progresiboki baliatzearekin, eta bateraezina izango da, orobat, osasun fisiko eta mentaleko ahalik eta mailarik gorenerako eskubidearekin, etxebizitza duina izateko eskubidearekin eta edateko ura eta saneamendua izateko eskubidearekin.

Klima aldaketaren adibideak emateko, bereziki nabarmendu ohi dira tenperaturaren igoerarekin zuzenean edo zeharka lotutako muturreko gertaerak. Bero boladek eragiten duten tokietan, biztanleria kalteberagoa da berez, eta hauexek pairatzen dute gehien, nekazaritza beharrezkoa baitute bizirik irauteko. Prezipitazioetan ere nabaritzen da tenperaturaren igoera horrekiko efektu paralelo bat, uraren zikloaren azelerazioaren bidez. Euri jasak are gogorragoak dira, eta lehortealdiak, berriz, luzeagoak. Eta, horren ondorioz, murriztu edo galdu egiten dira nekazaritza errendimenduak.

Trantsizio ekologikoa hainbat urtez atzeratu denez (batez ere erabaki politiko ezagatik eta karbonoarekiko dugun mendekotasun handiagatik), klima hasi da bere erregimena aldatzen modu itzulezinean, ehunka urterako. 2018an, tenperatura globalaren igoera 1 °C pasatxokoa izan zen, eta orain 1,1 °C-koa da. Datozen urteetan, laster harrapatuko dugu Parisko Akordioak ezarritako 1,5 °C-ko muga.

Hori guztia ikusirik, gaur egun funtsezkoa da hezkuntzarekin pentsatzea: ez tenperatura globalaren igoera eta horrek izango lituzkeen eraginak mugatzeko bitarteko gisa bakarrik, baizik eta etorkizuneko belaunaldiak klima aldaketa horietara egokitzeko ere bai. Eta, zoritxarrez, zenbat eta ahulagoak izan populazioak, orduan eta garrantzitsuagoa izango da egokitzapen hori.

IPCCk beste behin nabarmendu duenez, klima aldaketaren aurka borrokatzeak etorkizun hobe baten alde borrokatzea esan nahi du, bai eta garapen jasangarriko zenbait helburu betetzea ere.

Bere baliabideak prestatzeko egutegian, Klima Hezkuntzarako Bulegoak erabaki du IPCCk proposatutakoari jarraitzea, eta horrek aukera ematen du, batetik, erreferentzia zientifiko oso sendoetan oinarriturik esku hartzeko, eta, bestetik, irakasleek gaurkotasan zientifiko eta politikoarekin lotuta lan egiteko.

Klima Hezkuntzarako Bulegoak zenbait baliabide eta tresna pedagogiko prestatu ditu ikasleek klima aldaketa uler dezaten 1,5 °C-ko beroketarekin, ozeanoekin eta kriosferarekin loturik, eta, berrikiago, klima aldaketa eta lurra ere kontuan harturik.

Klima Hezkuntzarako Bulegoak landuriko gaiak aintzat hartzen dituzte dimentsio zientifikoa eta soziala, tokian-tokian eta mundu osoan; aldi berean, ikasleen arrazoitzeko trebetasunak garatzen dituzte, eta, orobat, orientabideak ematen dituzte ikastetxe edo komunitateetan neurriak hartzen dituzten (arintzekoak eta/edo egokitzekoak). Baliabide horien artean, hauexek nabarmentzen dira:

- **Irakaslearen eskuliburua**, (I) Lehen Hezkuntzako azken urteetatik Bigarren Hezkuntzako lehen zikloaren amaierara arteko ikasleentzat pentsatua (9 eta 15 urte bitartean), (II) ikuspegi zientifikoak eta pedagogikoak, ikasketa planak, jarduerak eta lan orriak biltzen dituena, (III) diziplinarteko gaiak jorratzen ditu, hala nola natura zientziak, gizarte zientziak, arteak eta gorputz hezkuntza, (IV) pedagogia aktiboak sustatzen ditu, esaterako, ikerketan oinarrituriko zientzia hezkuntzak, rol jarduerak, eztabaida eta proiektuetan oinarrituriko ikaskuntza.
- IPCCren bi txosten bereziren **laburpenak irakasleentzat** (Ozeanoak eta kriosfera [...], 1,5 °C-ko berotze globala eta Klima aldaketa eta lurra). Laburpenekin batera, ikasgelan lantzeko moduko jarduerak eta ariketak ere hautatzen eta aurkezten dira.
- **10 bideo** bi sorta, zeinetan adituak mintzo baitira ozeanoarekin, kriosferarekin edo lur eta klimarekin lotutako gai zehatz bati buruz. Bideo horiek ikasleekin erabil daitezke gai ja-

kin bati buruzko eztabaida hasteko edo amaitzeko: hiriko bero uharteak, glaziarrek, ozeanoak azidotzea, zikloi tropikalak, itsas energia, poloak urtzea, zirkulazio termohalinoa, El Niño, mangladiak edo itsas mailaren igoera. Beste gai batzuk ere jorratzen dira, hala nola basoak, biogasa, nekazaritza, permakultura, migrazio klimatikoak, herri indigenak eta abar.

- **Multimedia jarduera** sorta bat, ikasleei aukera ematen diena klima aldaketarekin zerikusia duten hainbat gaitan modu interaktiboan lan egiteko; esate baterako, itsas mailaren igoera, elikadura sareak, karbono aztarna eta arintzeko/egokitzeko soluzioak, elikagaiak, karbonoaren zikloa, eta abar.
- **Irakasle eta trebatzaileentzako hiru baliabideko sorta**, berotegi efektuari eta ozeanoei buruz trebatzeko, bai eta metodologia bat ere, tokian-tokian garrantzitsuak diren hezkuntza proiektuak prestatzeko.
- Klima aldaketari buruzko ihes jokoa.

Baliabide horiek lau hizkuntzatan daude argitaratuta, eta doan eskura daitezke.

Azkenik, Klima Hezkuntzarako Bulegoak irakasleen COP26 programa kaleratu du aurten Glasgowen, mundu zabaleko irakasleek elkarrekin gogoeta egin dezaten klima aldaketaren gaineko hezkuntzaren egungo mugei buruz eta hura hobetzeko proposamen multzo bati buruz. Azken dokumentua urriaren 30ean bozkatuko da eta hurrengo astean aurkeztuko zaie Hezkuntzako eta Ingurumeneko ministerioei. Horiek guztiak kontuan hartzea da helburua, trantsizio ekologiko hobe lortzeko.

Hitzaldia ikusteko, egin klik nahi duzun hizkuntzan: [gaztelera](#), [ingelera](#).



Hezkuntza **ekosozialerako baliabide pedagogikoak**

Luis González Reyesek idatzi eta emandako hitzaldia. **FUHEM Fundazioko** hezkuntza ekosozialaren koordinatzailea

Hezkuntza ekosozialaren zentzua

Zertarako balio du hezkuntzak? Jendeak etorkizunean erabakitzeke ahalik eta aukera gehien izateko litzateke erantzun bat. Horrek esan nahi du beharrezkoa dela etorkizuna nolakoa izango den proiektatzea eta, horren arabera, zer trebetasun beharko diren aurreikustea. Oinarrizko ariketa da hori irakaskuntza-funtzioan.

XXI. mendearen une honetan, zalantzarik ez da abian den krisi **ekosoziala** errotik ari dela eraldatzen planeta, gizarteak eta ekonomia. Adibidez, klima-aldaketa existitzen da jadanik, eta horrek sakon aldatuko ditu gure ikasleak bizi diren inguruneak. Baliabide berriztaezinak (petrolio, gasa, ikatza, kobrea edo fosforoa) hain eskuragarri ez egotea izango da beste aldaketa handietako bat, horren lehenengo faseak dagoeneko ari baitira gertatzen. Edo disfuntzio **ekosistemikoa**; izan ere, Lurreko bizitzaren historiako espezieen seigarren suntsipen masiboa gertatzen ari da. Horren ondorioz, polinizazioari edo uren arazketari eusteko arazoak sortzen ari da, beste hainbat artean adibide pare bat jartzearen.

Krisi anizkoitz honen ondorioz, biztanleriaren kontsumo-ahalmenak behera egingo du ezinbestean, eta, beraz, ondasun gutxiagorekin zorientsuak izaten ikasi beharko da. Baita gauzak konpontzen eta birziklatzen ere. Ekonomiak antolatzen ikasi beharko da, pertsona guztiek bizitza duina bermatua izan dezaten, gero eta zailagoak diren baliabideak banatuz. Edo **gizarte- eta ingurumen**-arloko gatazkak arautzen.

Baina hori ez da nahikoa. Hezkuntza, zerbitzu indibiduala baino gehiago, zerbitzu sozial eta kolektiboa da. Herritar guztien baldintzak hobetzen lagundu behar du hezkuntzak, hau da, gizarte demokratiko, bidezko eta jasangarriak —**ekosozialak**, azken batean— egituratzen.

Curriculum ekosoziala

Eskola ikuspegi **ekosozialetik** eraldatzeko, ezinbestekoa da irakaskuntza-praktikaren bihotzean sartzea: curriculumean, alegia. Curriculumari heltzen ez bazaio, mezu hauxe transmitituko da: gai horiek, egiaz, ez direla zentralak. Gainera, ezingo dira behar bezain sakon landu. Curriculumari ikuspegi ekosoziala emateko, ezinbestekoa da hura osatzen duten elementu guztiak kontuan hartzea: helburuak, edukiak, metodoa eta ebaluazioa.

Gaitasun ekosoziala

Gaitasun ekosozialaren helburua da pertsonak eta komunitateak bizitza on bat izateko gaitzea, eta,aldi berean, modua egitea Gaiak (Lurrean bizi garen izaki bizidunen multzo antolatuak) iraun dezan eta, agian, heda dadin.

Hori posible izateko, ezinbestekoa da pertsonok gure erabateko **interdependentziak** dakarrena onartzea, hau da, beste pertsona batzuen zainketak jasotzeko premia saihetsezina dugula; eta baita gure ekodependentzia ere, hots, ulertzea gizakiaz harago dauden **ekosistema**-egituren

parte garela eta haiengandik hainbat eta hainbat funtzio behar ditugula (lurzorua ongarritzea, urak araztea, polinizatzea, eta abar).

Bizitza on hori eta Gaiaren hedapena lortzeko, herritarrek aldaketa ekonomiko, politiko eta kultural sakonak egin behar dituzte, kapitalismoa, **heteropatriarkatua** eta Estaturua gainditzeko. Azken hori gizartea antolatzeko modu bat da, barneko eta kanpoko (kolonialismoaren bitartez) hierarkiak betiketzen dituen, nahiz eta eztabaida sozialeko espazio bat ere baden. Eraldaketa horietarako, pentsamendu **holistikoa** eta kritikoa, bizimodu guztiekiko enpatia eta errukia garatu behar dira, bai eta koordinazio sozialeko trebetasun sorta bat ere, ikuspegi demokratiko, bidezko eta jasangarriak oinarri dituen.

Eraldaketa horiek ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren arloko krisiek bat egitearen ondorioz sortu den **zibilizazio**-kolapsoaren testuinguruan gauzatu behar dira. Kolapso horrek esan nahi du indarrean dagoen gizarte-ordena bideraezina dela epe laburrean, eta beste batzuk sortuko direla. Ordena berri horiek erabat irekita daude, **ekosistema aldetik** posible denaren eta soziologia aldetik **onargarria** denaren tarteen barruan. Hau da, ordena horiek energia eta material gutxiago izateak baldintzatuko ditu, bai eta klima-larrialdiaren eta seigarren espezie-suntsipenaren ondorioz **oreka ekosistemikoa hausteak** ere. Eta baita gure egungo antolaketa politiko, ekonomiko eta kulturalak ere, boterearen eta aberastasunaren banaketan desberdintasun handiak baitaude.

Metodoa

Metodo batek begirada **ekosoziala** izango badu, printzipio hauek izan behar ditu:

- Ikuspegi **sozioafektiboa**. Munduan dauden desberdintasunak edo ingurumen-krisia ezagutzeak ez du esan nahi ikasleak aldaketa **ekosozialerako** eragile aktibo bihurtzen direnik. Hori gerta dadin, ezinbestekoa da ikasleek pertsonekin eta gainerako izaki bizidunekin enpatia izatea, besteen mina eta poza sentitzea. Horixe da ikuspegi **sozioafektiboaren** oinarria, emozioak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren erdigunean jartzea. Bestalde, ikaskuntza esanguratsuen elementu nagusietako bat **bizipenean oinarritua** izatea da. Hemen, berriz ere, garrantzia hartzen du ikuspegi sozioafektiboak. Kontua ez da janari ekologikoaren garrantzia teorizatzea, produktu ekologikoak jaten direnean sentitzen dena esperimintatzea baizik (ekoizpen ekologikoa, hurbilekoa, sasoikoa, haragi gutxiakoa), horrek berekin dakartzan gatazka guztiekin.
- **Ekintzarako ikaskuntza**. Hezkuntzak ikuspegi ekosozialetik aktiboak diren ikasleak sustatu nahi baditu, ezinbestekoa da ikasleak ingurunea aldatzeko ekintzen protagonista izatea eta hezkuntza horrek ezaugarri hauek izatea: I) Gaitasun ekosozialak entrenatzea, hala nola taldean lan egitea, gatazkak arautzea eta hurbilen dagoen testuinguru eraldatzea. II) Izaki bizidun onuradunekin enpatizatzea eta haiengandik ikasteko aukera ematea. III) Aldaketa hautemangarriren bat eragitea. Ezin da entrenatu ekintzaren hutsaltasuna. Hori oso garrantzitsua da. IV) Ikasleak ekintzaren protagonista izatea, ez ikusle izatea.
- **Ezagutzaren eraikuntza kolektiboa**. Hezkuntza ekosozialaren zutabeetako bat demokrazia indartzea da. Eskola-eremuan, demokrazia praktikatzeko funtsezko gune bat ezagutza eraikitzea da, eta, demokratikoa izateko, kolektiboa izan behar du. Ikuspegi horrek, gainera, berdinen arteko elkartasuna eta elkarrekiko laguntza praktikatzeko aukera ematen du. Ez da hitz egiten elkartasunaz edo elkarrekiko laguntzaz, baizik eta praktikan jartzen da hori. Horri gehitu behar zaio eraikuntza kolektibo hori dela hezkuntza askatzailea eta manipulatzailea bereizten dituen elementu nagusia. Hezkuntza-aukera ororen atzean mundua ikusteko eta munduan egoteko modu bat dago. Ez dago hezkuntza neutralik; izan ere, ezinezkoa da aukerarik ez egitea ikaskuntza-helburuak, edukiak, metodoa eta ebaluazio-mekanismoak hautatzeko orduan. Alabaina, ikasleek eta hezkuntza-komunitateak landu ditzakete beren ondorioak eta ikaskuntzak. Ikuspegi hori hezkuntza ekosozialaren

bihotzean dago, eta, ikuspegi horretatik, garrantzitsua da ezagutzaren eraikuntza kolektiboan oinarritutako metodo bat erabiltzea ere. Azkenik, hezkuntza ekosoziala, definizioz, hezkuntza inklusiboa da, eta, beraz, erabakigarriak dira aniztasunari erantzuteko mekanismoak, inor atzean ez uzteko.

- Ikaskuntza **aktiboa**. Jakintza-mekanismo orokor gisa, ikerketa da, ziurrenik, tresnarik boteresuenetako bat; izan ere, ikaskuntza-prozesua eragiteko, gizakiak berezko duen jakin-minaz baliatzen da. Baina, hortik harago, ikasleak rol aktibo batean jartzen ditu eskoletan, eta, modu horretara, askoz ere ikaskuntza ahaltsuagoak lortzen dira.
- Begirada **holistiko** eta **kritikoa**. Gaur egungo mundua ulertzeko eta mundu honetan jarduteko gakoa konplexutasuna ulertzea da. Bestalde, pentsamendu kritikoa honako hau da: egiazkotzat jotzen diren ideiak ebaluatzen dituen, ideia horiek zeinahi izanda ere, eta ikasleei ondorioak ateratzeko aukera ematen diena, gainerako hezkuntza-komunitatearekin elkarrekin. Pentsamendu horren abiapuntua ez da eztabaida faltsuak planteatzea (esate baterako, klima-aldaketarik baden ala ez), baizik eta aztertutako gertakariaren inguruko argudio onenetan sakontzea. Horretarako funtsezko elementua da galdera onak egitea, alegia, analisi sakontzeko eta ikertzeko aukera emango duten galderak egitea, baina, era berean, funtsezkoa da gaiari buruz gutxieneko ezagutza bat izatea, bestela ezinezkoa izango baita kritika oinarriturik egitea.

Ebaluazioa

Helburuak ebaluatzen ez badira, halakorik ez izatea bezala da, eta hori irakaskuntza-kalitate eskasaren erakusgarri da. Horregatik, helburu **ekosozialak** noraino lortu diren ebaluatu behar dugu.

Gainera, ikaskuntza-helburu **ekosozialak** noraino lortu diren kalifikatzen ez bada, ematen den mezua ez ditugula baloratzen da. Garrantzitsuak badira, ez bakarrik adierazi behar da lortu diren ala ez, baizik eta horren berri ere eman behar zaie ikasle eta familiei.

Ebaluazio hori egiteko moduak bat etorri behar du metodoarekin. Horri dagokionez, bi indar-ideia nabarmenduko ditugu: Lehenik eta behin, ebaluazioak ez du botere-tresna izan behar, baizik eta ikaskuntza partekaturako tresna. Bigarrenik, partaidetza bidez egin behar da hori.

Material didaktikoak funtsezko tresna gisa

Gai hauek ikasgelan sakon sartu nahi badira, programatzeko tresnak ez ezik, irakasleei programa hori gauzatzeko tresnak ere eman behar zaizkie: material didaktikoak. Material horiek zailak dira egiten; izan ere, ezinbestean izan behar dira arloari buruzko ezagutzak, eduki **ekosozialei** buruzkoak, hezkuntza-prozesu osoaren ikuspegi globala, “eskola emateaz” bestelako trebetasun didaktiko batzuk, eta baita maketazioarekin eta diseinuarekin lotutako trebetasunak ere. Horrez gainera, denbora asko eta motibazio handia behar dira. Argi dago irakasle guztiek ezin dutela hori dena izan.

Gainera, material horiek estrategikoak dira; izan ere, hezkuntza-komunitate osoaren prestakuntza ahalbidetzen dute, eta ez soilik ikasleena. Badakigu familiek ere erabiltzen dituztela material didaktikoak etxean, eta irakasleek elementu horretatik ikasten dutela.

Horregatik, FUHEMen hartzen ari garen neurri guztien artean, nabarmentzekoa da guk egiten ditugun material didaktikoek zeharka txertatuta dauzkatela eduki **ekosozialak**.

Lehenengo hurbilketa tiempodeactuar.es blogaren bidez eta **gure beste material batzuen bidez** egin dugu, baina handinahiagoak dira **ikuspegi ekosoziala duten DBHko material diziplinartekoak**. Hona hemen haren ezaugarriak:

- Begirada **ekosoziala**.

- **Diziplinartekotasuna.** Proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren eta zerbitzu-ikaskuntzaren alde egiten da, baina, aldi berean, jakitun izanda koordinatzeko denbora behar dela eta ikas-tetxeetan ordutegi-aula hausteko mugak daudela. Hori horrela, material batzuk diseinatu dira, eta material horietan jadanik sartuta dago koordinazio-lanik gehiena. Egitura hau dute: 1) Eragilea. Gehienez ere, goiz bat da; goiz horretan, ordutegi-aula hautsiko da, eta horretarako irakasleen koordinazioa behar da. 2) Irakasgaien arabeko lana. Fase honetan ez da beharrezkoa irakasleen arteko koordinazio espliziturik, irakasleek materiala egiten baitute. 3) Azken proiektua. Ikasleek soilik proiektuan egiten dute lan, eta irakasleak horretan laguntzeko sartzen dira haien ordutegian. Proiektua irakasgai bakoitzean ikasitakoa praktikan jartzeko diseinatuta dago.
- **Malgutasuna.** Ikasleentzat inprimatutako koadernotxo bat aurkeztuko da, ikasgela birtual batean jarritako jarduera **autoeditagarri** dezentez osatuta. Materialak proposatutako ikaskuntza-sekuentzia bat du, baina, aldi berean, baliabide-banku bat da, irakasleek egoki irizitako prestakuntza-ibilbideak abian jar ditzaten; izan ere, ez du denborarik ematen dauden jarduera guztiak egiteko.
- **Ezagutzaren eraikuntza kolektiboan eta ikaskuntza aktiboan oinarritutako metodologiak.** Horrek esan nahi du materialek ez dutela jasotzen “ikasi beharrekoa”, baizik eta askotan irakasleek egiten dutela hori. Gainera, ikaskuntzaren ardatza ez da testu idatzia, jarduera baizik. Ikaskuntza erronken bidez egituratzen da, eta, beraz, irakasleak rol aktibo batean jartzen ditu une oro.
- **Aniztasuna aintzat hartzea.** Jarduera-proposamenen barruan, hainbat ikuspegi metodologiko daude, eta, horiei esker, irakasleek ikasleen **aniztasunera** egokitu ditzakete saioak.
- **Irisgarritasuna.** Materiala ez da soilik FUHEMentzat, baizik eta hura erabili nahi duten ikas-txe guztientzat. Denontzako tresna bat.

Hitzaldia ikusteko, egin klik nahi duzun hizkuntzan: [gaztelera](#), [ingelera](#).



ESenRED, justizian eta jasangarritasunean hezteko eskola-sareak

Jose Manuel Gutierrez Bastidak idatzi eta emandako hitzaldia. **ESenRED** jasangarritasuneranzko eskolen Espainiako sarearen kidea

Ingurugela ingurumen-didaktikako hezkuntza eta ikerketarako zentroyen sare bat da, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ingurumen-hezkuntza lantzen duena. Zentroa 1989an sortu zen, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza- eta ingurumen-sailen arteko akordioaren ondorioz. Eginkizun hauek ditu: ikertzea, irakasleak prestatzea, ikastetxeei aholkularitza ematea, sentsibilizazio-kanpainak egitea eta dokumentazio-zentroak mantentzea.

Haren zeregin nagusia Eskola Agenda 2030 programaren ingurukoa da. Hain zuzen, programa hori EAEko 450 ikastetxetan ari dira garatzen (ikastetxeen % 65). Ikastetxeek, programan bost urte betetakotan, **autoebaluazio**- eta audiotretza-prozesua egin dezakete nahi izanez gero, eta, horren bidez, "Eskola Jasangarria" aintzatespena lortu. Gaur egun 110 ikastetxek eratzten dute IRAES 21 sarea (**Iraunkortasunerako Eskolen Sarea 21**), eta sare hori, aldi berean, **ESenREDEko** parte da.

Nor?

ESenRED (Jasangarritasuneranzko Eskolak Sarean) ikasleen jasangarritasun-gaitasuna garatzeko lan egiten duten ikastetxeen sareen sarea da, administrazio publikoen ekimenez abian jarria. Une honetan, ESenREDEk 17 sare ditu, 4.200 ikastetxe baino gehiago, 1.700.000 ikasle baino gehiago eta ikasleen jasangarritasun-gaitasuna garatzeko lan egiten duten 10.000 irakasle baino gehiago. Hauek dira ESenREDen helburuak:

- 1. helburua: Ekintza, baliabide, material eta ideien sareen arteko topaketa, trukea, lankidetzeta eta hedapena erraztea.
- 2. helburua: Erreferentzia-ereduen gaineko ezagutza modu kolektiboan eraikitzeke praktikari berari buruzko hausnarketa, ebaluazioa eta berrikuntza sustatzea.
- 3. helburua: Sareek batzan dituzten edo partekatzen dituzten proiektuak garatzea, bai ikasleen gaitasun-ikaskuntza etengabe hobetzeko, partaidetzaren bidez ikasleak protagonista bihurtuz, bai irakasleen gaitasun profesionala etengabe hobetzeko.
- 4. helburua: Jasangarritasuneranzko eskolen nazioarteko beste sare batzuekin kontaktua izatea, harremanak sortzea eta proiektu komunak ezartzea.

Zer?

Helburu horiek garatzeko lana ardatz hauen bidez bideratzen da:

- **ESenREDen** mintegia. Topaketarako, trukerako, informaziorako, eztabaidarako eta eraikuntzarako gune komun bat, sareetako teknikari arduradunen esku dagoena. **ESenREDen** motorra da, eta urtero biltzen da, **CENEAMen** (Ingurumen Hezkuntzako Zentro Nazionala). 2010az geroztik, erregulartasunez funtzionatzen du.

- **ESenREDe**ko irakasleen sinposioa. Irakasleen urteroko topaketa da, besteak beste jardunbide arrakastatsuak trukatzeko, ingurumen-hezkuntzako erreferente garrantzitsuekin prestatzeko eta proiektuak elkarrekin egiteko egiten dena. 2015ean jarri zen abian.
- **ESenRED** ekintza, ekainaren 5ean. Ingurumenaren Munduko Eguna dela eta, ikastetxeei urtero proposatzen zaie **heziketa eta komunikazioko** ekintza komun bat egitea gaurkotasunarekin lotutako gairen bati buruz, hala nola: klima-aldaketa, garapen jasangarrirako helburuak (GJH), COP25eko agintarientzako mezua eta COVID-19aren pandemian mundua aldatzeko behar den txertoa. Ekintza hori 2013tik garatzen da.
- Nazioarteko Haur-Gazteen Konferentzia: Zaindu Dezagun Planeta (**Confint**). Prozesu pedagogiko **konstruktibista** bat da, ikerketa-ekintzako prozesua. Horren bidez, gazteek arazo **ekosozialei** buruz eztabaidatzen dute, eta ordezkariak aukeratzen dituzte, adostutako planteamenduak beste instantzia batzuetara eramanez ditzaten. Aldi berean, ikasleen **ahalduntzea** lantzen dute, erantzukizun indibiduala eta kolektiboa gara dezaten, eta, horrela, **ekintza ekosozial** eraldatzaileen bidez, tokian-tokian eta globalki jardun dezaten.

Hainbat mailatan garatzen da: eskolan, erkidegoan, estatuan, Europan eta nazioartean. Eta hiru oinarri ditu:

- Gazteak gaztea hezten du (berdinen arteko ikaskuntza)
- Gazteak gaztea aukeratzen du (parte-hartze demokratikoa, hurrengo mailan ordezkartuko dituen pertsona hautatzeko)
- Belaunaldi batek beste belaunaldi batekin ikasten du (desberdinen arteko ikaskuntza)

2009az geroztik, hainbat autonomia-erkidegok egiten dituzte eskoletako eta autonomia-erkidegoetako Confintak. Estatuan, bost Confint egitea lortu da: Gasteiz, 2012; Bartzelona, 2014; Logroño, 2016; Alcaraz, 2018, eta Guadarrama, 2021. Halaber, Europan hiru Confint egin dira, eta dozena bat herrialdek hartu dute parte. 2012an eta 2015ean, Europako Gazteen Confinta: Zaindu dezagun planeta Europako Eskualdeen Batzordean (Brusela) garatu zen, eta 2018an gauzatu zen jarduera, Lisboako Parlamentuan.

Autonomia-erkidegotik aurrera, zer erantzukizun hartu dituzten eta zer eraldaketa **ekosozial** eskatzen dituzten azaltzen diete gazteek agintariei. Agintariak behartuta daude erantzutera, eta, horrela, nolabait, ingurumen-hezkuntzaren dimentsio politikoa garatzen da.

Nola?

Etorkizunean itxaropena izateko, ekoherritarrak behar dira, ongizate ekologiko eta soziala modu integralean bilatuko dutenak, munduari eragiten dioten gaiei buruz modu kritikoan pentsatuko duenak eta, askotariko eta kontrastatutako informazioan oinarrituta, gizartean **jarrera** bat **hartuko** dutenak.

Bizitza erdigunean jartzea beharrezkoa da; bizitza duina, pertsona guztientzat bizitza merezi duen bizitza bat bermatzea lehentasunezko zatik joko duten politikak, kulturak eta komunitateak eraiki behar dira. Bizitza erdigunean jartzen duen trantsizio ekosoziala bi printzipiotan oinarritzen da: gizakiok **elkarren mendeko** izakia da (beste pertsona batzuen menpe dago bizitzeko, batez ere haurtzaroen, gaixotasunean edo zahartzaroen eta mendetasunean, baina baita elikatzen dituzten, janzen dituzten, etxebizitzak egiten dizkioten pertsonen mende ere) eta **ekomendekoak** ere badira (natura gara eta hartatik ateratzen da bizi-premiak asetzeko behar dena: janaria, beroa, babeslekua...). Printzipio horiek berez daude giza eskubideekin erlazionatuta.

Gil eta Vilchesen arabera (2017), lehen belaunaldiko eskubideak, eskubide demokratiko zibil eta politikoez, iritzi-eskubideez, guztiok etnia, genero eta abarren mugarik gabe batzeaz eta elkartzeaz hitz egiten dutenak, ezinbesteko baldintza dira hezkuntza **ekosozialerako**, herritarren parte-hartzea garatzeko, gizartearen orainari eta etorkizunari eragiten dieten erabakietan parte hartzeko.

Lehen belaunaldikoekin lotuta, bigarren belaunaldiko giza eskubideek beste eskubide hauek bilzen dituzte: eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak; osasunerako, elikadura egokirako, lan egokirako, ingurune osasungarrian bizitzeko, kalitateko hezkuntzarako, aire librerako, sexualitateaz gozatzeko eskubidea, eta abar. Eskubideak guztiz beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoak arazo **ekosozialak** konpontzen laguntzeko. Horregatik sortu ziren hirugarren belaunaldikoak, ingurumen- eta elkartasun-eskubideak, hala nola: ingurumen osasungarriko, bakerako eta **jasangarritasunerako** eskubidea herri guztientzat eta etorkizuneko belaunaldientzat. Funtsezko eskubideak dira; izan ere, alde batetik, ingurumenaren degradazioa izango da biziraupen-alderdirik funtsezkoena, edozein lekutan eta munduko leku guztietan. Premiazkoa da, jadanik bai baitaude klimaren lehen errefuxiatuak. Bestalde, bakerako eskubideak eragotzi egiten du interes ekonomiko eta kultural partikularrak gainerakoei indarrez ezartzea. Ez dago gerra-gatazka bezain kutsagarri eta suntsitzaile den ezer. Ez eta hain antisoziala den ezer ere, milioika biktima eta errefuxiatu eragiten baititu. Azkenik, herri guztiek **jasangarritasunean** garatzeko duten eskubidea funtsezkoa izan daiteke krisi **ekosoziala** amaitzeko eta denok oinarrizko baliabide material, energetiko, garbi eta berriztagarriak eskuratzeko modua izateko. Eskubide horrek sendotu egiten du aniztasunaren, biodibertsitatearen, kulturen arteko mestizajearen eta arrazakeria eta oztupo etniko eta sozialen aurkako defentsa.

Ingurumen-hezkuntza ekosoziala, beraz giza eskubideei estu lotua baitago, funtsezko faktore bihur daiteke gizarte jasangarriagoak, hau da, ekologia aldetik orekatuagoak eta sozialki bidezkoagoak diren gizarteak lortzeko.

Horrela, heziketa ekosoziala prozesu bat da, bizi-ereduaren eraldaketa ekologiko eta sozialaren bidez, munduaren **kosmobisio** berri bat eta etika ekosozial berri proposatzen dituen. Prozesu horretan, pertsonak erabat garatzen dituzte beren gaitasunak eta trebetasunak, eta **ekoherritasuna** eraikitzen dute, beren jarduera **ekomendetasunaren** eta **interdependentziaren** printzipioetara egokituz, gainerako gizakiekiko eta izaki bizidunekiko loturak zainduz, betiere hezkuntzaren azken helburua kontuan hartuta: zoriontsu izatea.

Hala, bada, **ESenREDeko** ikasleek ikuspegi horretan lan egiten dute, eta, nor bere ikastetxean, jarduera eta ekintza eraldatzaileak garatzen dituzte. Saillkapen bat egin dugu jardueraren karga etikoaren arabera, eta, hori kontuan izanda, ikastetxe horietan egindako lanen ideia bat izan dezakegu:

- **Egokitzeko** ekintzak. Proposamenak etiko baino moralagoak dira, eta **ekokeinuekin** lotuta daude: ura, argia, papera eta inprimagailua erabiltzeko arauak eta beste baliabide didaktiko batzuk (abisu-kartelak, pegatinak, maskotak, eta abar); hondakinak kudeatzeko eta sailkatzeko eta dagokien edukiontzira botatzeko protokoloak; **ekokeinuen** ingurumen-onurak familiei eta tokiko komunitateari jakinaraztea; hezkuntza-komunitatean sentsibilizazio-kanpainak egitea, eta abar.
- **Arintzeko** ekintzak. Planteamendu politikoak (arlo publikoaz arduratzen den zentzuan) edo teknologikoak: efizientzia energetikoa hobetzea, eskola-mugikortasuna hobetzea, patioak leheneratzea, merkatu solidarioak bultzatzea, elikadura osasungarria sustatzea, ekosistemak garbitzea, flora autoktonoa landatzea, eta abar.
- **Trantsizioko** ekintzak. Krisi ekosozialari emandako erantzunak, erregai fosilen agortzeak eta krisi sozial globalak markatuak: kontsumo arduratsua eta tokikoa, lankidetzak, bizimodu ona, agroekologia, kultura- eta hizkuntza-aniztasuna, biodibertsitatea, elikadura-subiranotasuna, pertsonengan oinarritutako ekonomia, generoen arteko berdintasunezko harremana, kontrapublikitate-ariketak, Marchenako xaboa (ikastetxeetan egindako xaboa Togoko ospitaleetara iristen da, esate baterako), nazioarteko kanpainak: palma-olioa, klima-aldaketa, emakume zientzialariak (*International Animal Rescue*, *Homeward Bound*, *Mother Nature needs her daughters...*), eta abar.
- **Trantsizio ekosozialeko** ekintzak. Egitura ekosozialetan aldaketak eragiten dituzten proposamenak, ahalduntze-prozesu politikoaren bidez eta ikasleen gaitasunetara egokitutako ekintza zehatzen bidez komunitatearen baldintzak hobetzen laguntzen dutenak: gazteen arteko itun

ekosoziala, zainketak berreskuratzea (konfinamenduaren garaian adibide ugari daude), lurralde-plangintza ekologiko eta soziala, gobernantzan eta aurrekontu demokratiko eta partaidetzazkoetan parte hartzea, eskola-materiala biltzea eta Sahararen aldeko karabana solidarioan parte hartzea, esperientziak partekatzea, bizitza ardatz duten ekonomia sozialeko proposamenak, ekoherritarren eraikuntza etikoa, giza eskubideen eta pertsonen duintasunaren aldeko lana, zainketa eta bizitzaren bilbearen jasangarritasuna, eta abar.

Laburbilduz, **ESenREDeK**, bultzatzen dituen jarduera-ildoen bidez, ikasleen **gaitasun ekosoziala** garatzen du, eta **ahaldundu** egiten ditu, ingurunea eraldatzeko eta **jasangarritasunaren** eta justizia sozial eta ekologikoaren **oinarri** diren aldaketa globalak lortzeko.

Hitzaldia ikusteko, egin klik nahi duzun hizkuntzan: [gaztelera](#), [ingelera](#).



Bizitzaren aldeko aktibistak proiektuaren baliabide pedagogikoak

Natalia Riera Manzanok idatzi eta emandako hitzaldia. **Entrepueblos**-Herriarte Elkarteko hezkuntza teknikaria

Bizitzaren aldeko aktibistak proiektua **Entrepueblos-Entrepobles-Entrepobos-Herriarte** elkartek, Latinoamerikan, giza eskubideak, ingurumen-eskubideak, indigenenak eta feministenak defendatzen dituzten erakundeei laguntzeko egiten duen lanera osatzera dator. Ardatz nagusia **Gervasio Sánchez fotokazetariak** egindako argazki-erakusketa da. Proiektuaren web-guneak honela deskribatzen du:

Argazki-erakusketak heriotza-mehatxupean bizi diren emakume eta gizonen aurpegi anonimo horietara hurbiltzen gaitu. Mehatxuak pairatzen dituzte beren lurraldea eta natura, emakumeen eskubideak eta herritarren askatasuna defendatzeagatik. Defentsa horrek jo egiten du enpresa handien edo nazioz haraindiko taldeen interesen kontra; hauek, dena alde dutela eta zigorgabetasunik bat ere gabe, natur baliabideak eta lehengaiak –batez ere meatzaritzaren, hidroeletrikoen eta monolaboreen arlokoak– erazten dituzte. Hau, batez ere, Hondurasen eta Guatemalan gertatzen da, munduan dauden herririk bortitzenetako bi baitira.

Jasaten dituzten mehatxuak ez ezik, mehatxuak eragiten dituzten arazoak eta borrokatzeko arazoak ere ezagutarazi nahi ditugu, eta nabarmendu nahi dugu emakume defendatzaileek jazarpen bikoitzari aurre egin behar diotela beti; izan ere, emakume defendatzaileek pairatzen dituzten mehatxu eta indarkeria larriei, indarkeria patriarkala gaineratzen zaie, mota eta maila guztietakoa.

Erakusketa **Entrepueblos elkartek Hezkuntza Emantzipatzaile eta Globalaren esparruan egiten duen lanean** txertatzen da. Lan hori esperientziei eta ideiei buruz hausnartzeko modu gisa, munduari eta munduko arazoei begiratzeko modu gisa eta mundua hobeto ulertzeko eta bertan esku hartzeko balio duen ekintza eraldatzaile gisa pentsatuta dago.

Horretarako, hainbat kolektibo eta erakunderekin batera, unitate didaktikoak, prestakuntza-lantegiak, argitalpenak, erakusketak eta jarduera publikoak prestatu eta eskuragarri jartzen dituzte, pertsonen hezkuntza integralari tokiko, nazioko eta nazioarteko fenomenoak modu erlazionatu, esanguratsu eta kritikoa ulertzen laguntzeko.

Hezkuntza emantzipatzailea eta aliantzak: eraldatzeko tresnak

Gaur egun, hainbat krisik bat egiten dute: sozialak, politikoak, ekonomikoak, osasunekoak, klimatiakoak eta ingurumenekoak, zainketakoak... -desberdinak eta konbinatuak–, eta horrek are gehiago areagotzen du eskubideen urraketa. Erritmoak bizkortu eta ondorioak ezkututzen ditu, eta are agerigoan uzten du bizirik irauteko zaintzen eta ondasun komun **jasangarritasunaren** mende gaudela (ura, energia, aire garbia, lurzoru emankorrak, basoak...), baina beste gauza batzuk ere behar ditugula, hala nola etxebizitza, komunitatea, osasun publikoa eta babes kolektiboa, zaintzak eta afektuak.

Zaintzen **zentraltasun** horrek, eskubide kolektibo gisa ulertuta, aurrera egin eta jarduteko balio behar digu, eraldatze aldera, izaki zaurgarriak, **interdependenteak** eta **ekodependenteak** garelako ahaztu gabe.

Beharrezkoa da **eskubideak defendatzeko eskubidearen alde lan egiten jarraitzea, herri-hezkuntza emantzipatzailea oinarri hartuta, prozesu artikulatuen bidez, komunitateen komunitatea indartuz.**

Tokian tokiko hausnarketa eta ekintzatik eta mobilizazio kritikotik abiatuta, **gutziz sinetsita gaudede hezkuntza dela, gizarte gisa egin behar dugun eraldaketa kultural honetan, laguntzeko potentzialik handiena duten tresnetako bat.**

Sareko prozesuak, aliantzak eta lankidetzak baliabide pedagogikoen bidez ekarpenak egiteko aukera ematen digute; baliabide pedagogiko horietako batzuk Bizitzaren aldeko Aktibisten proiektuan jasota daude. Hegoalde globaleko jakinduriekin, erresistentziekin eta alternatibekin konektatzea ahalbidetuko diguten materialak dira, gero eta gehiago izanik, eta **ezagutzera emanaz** bizitzaren aldeko aktibistak garela, denon aldekoak, baita Planetaren aldekoak ere, inor atzean utzi gabe, askotariko alternatiba **ekosozial** bidezkoak finkatuz; eta bizitzea merezi duten bizitzen aldekoak, krisi **postpandemikoak** gorabehera.

Baliabide pedagogikoa. Larrialdi Klimatikoa: justizia klimatikoko praktikak eta ekintzak aztertzeko eta ekiteko elementuak

Emergencia Climática izeneko gida didaktikoa eskuragarri jartzen ditugun baliabide pedagogikoen multzo honetan sartzen da, bizitzaren aldeko aktibistak ekartzeko, laguntzeko eta indartzeko, baita hemen ere, iparraldean.

Gazteentzako materiala, bai hezkuntza formaleko espazioetan (DBHko bigarren ziklora eta Baxilergora bideratua) bai ez-formalekoetan erabiltzekoa, bai aktibisten taldeek bai gizarte-kolektiboek baliatuzkoa.

Proposamen pedagogikoa **Edualterrekin** batera egin da, larrialdi klimatikoari eskubideen eta justizia globalaren ikuspegitik heltzeko, bai eta konplexutasunetik ere, hainbat lengoia eta begiradetatik abiatuta, gaia bizitzaren eremu guztietan zeharkakotasunez tratatzen saiatuz.

Nabarmendu behar da gida egiteko Carmen Sala eta José Antonio Antón **Entrepueblos** elkarreko aktibisten berrikuspina eta ekarpenak izan ditugula, bai eta **EduGlobalStem** Lantaldeko irakasleen ere, **Edualterren** bidez. Aipatzekoa da, halaber, **Fridays For Future** Barcelona gazteak prozesuaren hasieratik inplikatu direla. Lan kolektibo horri esker, sendotasuna erantsi zaio proposamen pedagogikoari.

Hezkuntza-materialak hainbat gairi heltzen die, proposamen metodologikoen, jardueren eta material osagarrien bidez. **Zortzi jarduera egiten dira, gaur egungo larrialdietan justizia klimatikoaren gaia lantzeko.** Sarrera moduan, jarduera bat egiten da eta, bukaeran, prozesua amaitzeko proposamen bat, hainbat saiotan balio eraldatzailea sustatzeko helburuarekin.

Zortzi hezkuntza-proposamenekin batera, gogoeta **metodologikoak** lantzen dira, hezkuntza-komunitate zabalduetik estrategiak bultzatzeko tresnak eta ibilbideak eskaini ahal izateko, eraldaketa ekosozial, justu, inklusibo eta feministara bideratutako curriculum-gaitasunak lantzea ahalbidetuko duten tokiko prozesu eta prozesu globalaren osagarri gisa.

Jardueren eta baliabideen bitartez, gidaren helburua da **gaiaren zeharkakotasuna lortzea bizitzaren eremu guztietan.** Prozesu integral bat lortu nahi da, hainbat arlotako curriculum-gaitasunak landu ahal izateko, eta ez soilik arlo zientifikoetakoak.

Materialak espazio-denboraren arabera egokitu daitezke, baita gure xede den publikoaren arabera ere (ikasleak, irakasleak, mugimendu eta talde klimatiko nahiz sozialekin lotutakoak).

Proposamen didaktikoaren jarrera pedagogikoa justizia globalerako hezkuntzaren barruan kokatzen da, emantzipazioaren, feminismoen eta dekolonialitatearen ikuspegietatik ulertuta, beste ezagutza eta jakintza batzuk aintzakotzat hartuta, prozesu akademikoek eta mendebaldeko historiak ukatu dituenak.

Horregatik, gidaren ibilbidean zehar, **lehentasuna ematen zaio “nola” galderari, eta ez “zer” galderari, arreta prozesuetan jartzearen alde apustu eginez,** eta taldearekiko jarrera parte-hartzailea eta demokratikoa erakutsiz. Gaia konplexutasunetik jorratu nahi da, eta ez guztizko ezagutza transmititzeko ideiarekin, baizik eta pitzaduretatik, zalantzetatik eta kontraesanetatik

transmititzeko asmoarekin, nor bere burua izaki emozional eta zaurgarritzat hartuta, eta gure ekomendetasunaz eta interdependentziaz kontzientziatuz.

Unitate didaktikoaren helburu nagusiak

Helburu nagusia **ekintzarako mobilizazioa sustatzea da, justizia klimatikoaren aldeko gazteen eta ikasleen mugimendua indartuz**. Asmoa da konpromiso indibidualak hartzea eta gaiarekiko erantzunkidetasunaren pertzepzioa areagotzea, kontuan hartuta bai mikroena dena, egunerokotasunetik abiatuta, bai makroa dena, dinamika globalak, nazioarteko akordioak eta konpromiso politikoak ulertzetik abiatuta. Horri esker, ekintza eta gertakari koherenteak eta **testuingurura egokituak** antolatu ahal izango dira.

Hainbat errealitate nabarmentzen dira, hala nola giza **eskubideen eta ingurumenaren defendatzaileen kriminalizazioa**, zeinak lehen lerroan egoten diren, bizitza eta planeta defendatzen. Errealitate horrek lotura estua du **estraktibismoaren** ondorio sozial, ekologiko eta klimatikoekin, hainbat krisi-motak bat egiten duten egungo testuinguru honetan (krisi klimatikoa, soziala, ingurumenekoa, ekonomikoa, zainketena...).

Ahots kritikoak aurkezten dira hemen, gizartearen eta ingurumenaren jasagarritasunarekin kezkatuta, egungo eredu sozioekonomikoaren balizko konponbideak eta alternatibak jorratzen dituztenak. Aldi berean, kontzientziazioaren eta parte-hartze politikoaren beharra planteatzen da, agintariak kontuak eman ditzaten eskatzen da, hori ezinbestekoa baita konponbide egokiak aplikatzen ari direla bermatzearen.

Alternatiba ekosozialei buruzko ikuspegi desberdinak **agerian** jartzen, aztertzen eta partekatzen dira, gazteei ahalduntze-prozesuak hurbilduz eta horretan lagunduz, ikuspegi feministetatik eta eskubideak defendatzeko eskubidetik abiatuta, toki mailako zein maila globaleko urraketak gainditzeko estrategia gisa.

Azken batean, **hezkuntza funtsezkoa dela kontuan hartuta, gure sozietate zibileko erakunde eta mugimenduekin era guztietako aliantzak, sareak eta osagarritasunak ezartzeko gaitasuna duelako**, eta sozietate zibilaren helburua ere badenez kontzientzia solidarioa eta mobilizazio soziala sustatzea –ez soilik Iparraren eta Hegoaren arteko desberdintasunei dagokienez, baita desberdintasun horien kausei dagokienez ere–, **horretarako ekintza eraldatzaile bat sortzen da, kolektiboen eta herri pobretuen aldekoa, eta giza eta ingurumen eskubideen urraketaren kontrakoa**.

Aipatutako eta/edo dokumentu honi lotutako material eta baliabide pedagogikoetarako estekak:

- 1 **Activistas por la vida** webgunea
 - 2 **Emergencia climática: unitate didaktikoa. Entrepueblos**
 - 3 **Los límites del crecimiento erakusketa eta unitate didaktikoa**
 - 4 **Activistas por la Vida argitalpena**. BLUME argitaletxea
 - 5 Argitalpena **¿Quién mató a Berta Cáceres?** Entrepueblos
 - 6 Dokumentala **Las Semillas de Berta Cáceres, germinan – Entrepueblos**
 - 7 Saio osoak **Diálogos Feministas y Ecologistas – Entrepueblos**
- Ikus-entzunezko kapsulak:
- Diálogos Feministas y Ecologistas – Entrepueblos**
 - Alianzas Feministas**
 - Extractivismo de los cuidados**
 - Sostenibilidad de la vida**

Eta beste batzuk, web honetan daudenak: **Entrepueblos – Cooperación internacional solidaria**

Hitzaldia ikusteko, egin klik nahi duzun hizkuntzan: [gazteleraz](#), [ingeleraz](#).



Ingurumen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzarako **postulatu ekofeministak**

Yayo Herrero Lopezek idatzi eta emandako hitzaldia. Ikertzailea, irakaslea eta **Garúa S. Kooperatibaren** kidea

Gure garaiko haustura handiak oso konplexuak dira. Klima-aldaketak, naturaren mugak gainditzeak, gizartearen ugalketan dagoen krisiak, berdintasun ezak areagotzeak, kalitate eta legitimitate demokratikoa galtzeak eta giza eskubideen bermean izandako atzerakadak agerian uzten dute krisi multidimentsionalak daudela, **horiek elkarren arteko zerikusia** dutela eta sustrai komunak dituztela.

Naturari eta pertsoneri kanpokotasunetik eta **instrumentaltasunetik** begiratzan dien kultura bat eraiki da, giza bizitza bakoitzaren **zaugarritasuna ezkututzen** duena eta bizitza egunero aurrera eramateko eta hari eusteko beharrezkoak diren harremanak eta lanak ikusezin bihurtzen dituena. Gure zibilizazioak arazo handi bat du: bere burua suntsitzen ari den bitartean aurrera egiten ari dela uste du.

Etekin ahalik eta eperik laburrenean lortzearen inguruan egituratzen da bizitza ekonomikoa, planeta finitu hau baliabide-biltegi gisa eta zabortege gisa erabili —nahiz eta agortze-zantzuak ematen ari den—. Gaur egun, diruak dimensio sakratua dauka: janaria, aire garbia, ura edo zaintza baino gehiago, dirua behar dela uste eta sentitzen da.

Horren ondorioz, gaur egun planeta itota eta degradatuta dago, eta bizitza gero eta mehatxatuagoa dago. Gizarte-sektore zabalen pobretzea eta kanporatzea areagotzen ari dira; indarkeria matxistak gero eta agerikoagoak dira eta erresistentzia handiagoa sortzen dute; eta ustelkeria, demokraziaren kalitate-galera eta errepresioa eta askatasun-galera eskandaluzkoak dira jada.

Premiazkoa da norabidea aldatzea, Lurraren muga fisikoak eta giza bizitza bakoitzaren zaugarritasuna ezagutzeko. Bizitzari eutsi egin behar zaiola jakinda soilik konpon daitezke metabolismo ekonomikoak eta **berbideratu** daiteke politika, lehentasuna honako hau izan dadin: baldintza duinetan bizirautea eta eskubideen aldeko konpromisoa lortzea.

Aldaketa hori, jakina, egiturazkoa da. Aldaketa horrek produkzio-ereduak eraldatzera behartzen du, gizakiaren eta pertsona guztien premiak erdigunean jarriz, eta premia horiek asetzeko beharrezkoa dena produzituz. Hori egitea da gakoa, gainera politika antolatzen duten printzipio edo ardatz gisa kokatuz honako balore hauek: justizia, eskubideak eta zaintza. Aberastasuna eta gizartearen ugalketaren inguruko betebeharrak behar bezala banatzeaz ari gara, besteak beste, zaintza lanaz, ez baita emakumeen betebeharra soilik, baizik eta gizonen, emakumeen eta erakundearen artean partekatu behar den **zibilizazio baldintza**.

Hezkuntza ez dago tentsio eta haustura horietatik kanpo. Bi aukera daude: heziketa egungo eredu legitimatzeko eta bertan ahalik eta modu onuragarrienean kokatzeko modu gisa ulertzea, ala pertsonak aurrean dauden arazo handiak ulertzeko eta horien aurrean moldatzea ahalbidetzeko balioak, trebetasunak eta ezagutzak eskuratzeko modu gisa ulertzea.

Arazo sozial, ekonomiko eta ekologikoak konpontzera bideratutako hezkuntzak, guztiontzako eskubideen bermea azpimarratzen duenak eta, euren burua **ekomendekotzat** jotzeko gai diren eta bizirik egoteko aukera ematen duten elkarrekiko mendetasun sakonen inguruko kontziente diren pertsonak hezteko gai denak, funtsezko zeregina izan dezake zibilizazio paradigma gero eta premiazkoagoaren aurrean.

Bizitzari eustea ahalbidetzea oinarritzat hartzen duen hezkuntzaz ari gara. Bizitza gogoetaren eta esperientziaren erdigunean jarriko duen hezkuntza, hurbileko lurraldeari eta komunitateari lotzea ahalbidetuko duena, egungo garapen ereduri maskara kendu eta hura salatuko duena; aldi berean bestelako aukerak irudikatu, eraiki eta esperimentatzeko aukera emango duena.

Garrantzitsua izango da eguzkia bizitzaren motortzat hartzea: fotosintesia da eguzki-argia atzitzeko eta kate trofikoak hasteko teknologia naturala. Neurri handi batean ura gabela eta horrek giza komunitateen sorreran, geopolitikan edo ekonomian funtsezko zeregina duela ulertu behar da. Airean aztertzean, hirietan dituen partikula toxikoak eta gure osasunari eragiten dion kutsadura horren ondorioak jakin behar da.

Bizitza erdigunean jarriko duen hezkuntza batek mundu biziarekin lotura afektiboak ezartzen lagunduko du. Gizakiak ez diren animaliekiko errespetua ikastea, gizakia planetako bizikide horien antzekoak eta desberdinak dela onartzea eta haien aurkako indarkeria salatzea ahalbidetuko du hezkuntza horrek.

Garrantzitsua izango da ikastea giza lanaren eta naturaren arteko elkarreraginaren ondorioz sortzen dena dela benetako aberastasuna, hain zuzen ere bizitza mantentzeko behar ditugun ondasunak eta zerbitzuak lortzeko. Eta, era berean, lana beharrezkoa dela bizitza zaurgarri bakoitza zaintzeko ere, batez ere bizi zikloaren une batzuetan, hala nola haurren hazkuntzan, zahartzaroan edo gaixo gaudenean. Hau bereizten ere jakin behar da: zein diren beharrezko lanak gizar-tean eta zein lan diren kaltegarriak; hala, trantsizio bidezkoetatik abiatuta, lan kaltegarri horiek **berbideratu** beharko dira.

Oinarritzko zainketei hezkuntza- eta politika-zentzua ematea funtsezko jardunbidea da **jasangarritasunerako**: besteak beste, izaki bizidunak zaintzea, gatazka batean bitartekari izatea, ikasgela garbi mantentzen laguntzea, etxean, eskolan edo jangelan egiten diren lan ikusezinak zein diren ikustea. Bizitzaren sostenguan **erantzunkide** izaten ikasteko moduak dira.

Hezkuntzak, halaber, justizia, eskubideak eta ekitatea komunitate erresiliente eta harmonikoak eraikitzeko funtsezko elementuak direla ulertzen eta esperimentatzen lagun dezake. Pertsonak esplotazioa, berdintasun eza eta bidegabekeria salatzeko gai izateko irizpideak eman behar ditu hezkuntzak, baita beste hau salatzeko ere: pertsona batzuek beste batzuei denbora kentzen dietela, eta horri esker, beren mende dauden pertsonak zaintzearen betebeharra alde batera uzten dutela, eta askotan baita beren burua zaintzeko betebeharra ere. Kontua da pertsona guztiak beren premiak betetzeko gai izan behar direla, eta aberastasuna zein betebeharrak ekitatez eta solidarioki banatzea eskatzeko gai izan behar direla.

Justizian eta berdintasun-eskubideetan hezteko, pertsona bakoitzaren berezitasuna ere errespetatu behar da. Eskolak dibertsitatea den bezala kokatu behar du, norberaren bizitzarako benetako bizi-aseguru gisa. Dibertsitateari buruz ari garenean; ikasteko moduei buruz, familia motei buruz, ibiltzeko, komunikatzeko, maitatzeko edo desiratzeko moduei buruz ari gara.

Bizitzaren zentraltasuna lantzea; hau da, Vandana Shiva izendatzen duen, **bizidunen demokraziaren** aldeko apustua egitea. Lurra gobernatzeko sistema bat, non izaki bizidun guztien interesak (landareenak eta animalienak barne) kontuan hartuko diren oraina eta etorkizuna eraikitzeko orduan.

Gomendatutako material batzuk:

1. **99 preguntas y 99 experiencias para aprender a vivir en un mundo justo sostenible.** Ekologistak Martxan sortutako material honek pentsamendu bakarraren egiak desmuntatzen dituzten eta paradigma kultural berri bat eraikitzen duten galderak proposatzen ditu, Lur planetan bizirautea eta duintasunez eta zuzentasunez egitea ahalbidetuko duen paradigma bat.
2. **Index for inclusion. Una guía para la evaluación y mejora de la educación inclusiva.** (2013) Sandoval, M., López, M. L., Miquel, E., Durán, D., Giné, C., Echeita, G. Ikastetxeetan hezkuntza-inklusio handiagoa lortzeko aldaketa-prozesuak bultzatzeko dokumentua, hezkuntza-komunitateko kideen ikuspuntuak kontuan hartuta.

3. **Jose Manuel Gutierrez Bastidaren materialak.** Ingurumen- eta ekosozial-hezkuntzarako materialak.
4. **Kataluniako zorraren behatokia globalizazioan.**
5. **Maleta pedagógica ecofeminista.** Pedagogia ekofeministaren bidez mundu justuagoa eta iraunkorragoa lortzea helburu duten Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko irakasleentzako eta ikasleentzako gida.

Hitzaldia ikusteko, egin klik nahi duzun hizkuntzan: [euskaraz](#), [gazteleraz](#), [ingeleraz](#).



Giza eskubideetan eta ingurumenean oinarritutako hezkuntza

Arantza Acha de la Presak idatzi eta emandako hitzaldia. Euskal Herriko **UNESCO etxearen** zuzendaria

Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak hainbat eginkizun izan ditzake, eta izan behar ditu, bai tokiko mailan, bai maila globalean. Gainera, nazioartean esparru partekatu bat izan behar du, giza eskubideek munduko hezkuntza-prozesu guztietan eginkizun garrantzitsu bat izan dezaten sustatzeko.

Hala, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren xedea da eskubide horien printzipio unibertsalak ezagutzea, ulertzea eta onartzea. Hori hezkuntza-sistemaren gainetik dago, eta bere barnean biltzen ditu giza eskubideen kultura globala ezartzen laguntzen duten ikaskuntza-, hezkuntza-, gaikuntza- edo informazio-jarduera guztiak.

Nazioarteko sisteman, estatu kideek dute langintza horren pisu handiena. Alde horretatik, bakearen kulturak herritartasun-kulturaren antza du, eta, modu horretara, sustatu egiten da pertsonok jabetu gaitezen zein diren gure eskubide eta betebeharrak, bai gure eskubideei dagokienez, bai hurbil dauden eta ez dauden gainerako pertsonen eskubideei dagokienez ere.

Nazio Batuen hainbat artikulutan azaltzen da giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren garrantzia. Bada, artikulua horien arabera, gure eskubideak ezagutu eta aldarrikatu ahal izateak aukera ematen digu gizarte libre, baketsu, plural eta inklusiboetako kide arduratsu gisa garatzeko. Hori tolerantziaren, diskriminaziorik ezaren eta berdintasunaren sustapenean ikusten da. Era berean, giza eskubideetan abusurik eta urraketarik ez izaten ere laguntzen du horrek. Azkenik, borrokatu eta deuseztatu egiten ditu kaltebera bihurtutako kolektibo³⁵ aurkako arrazakeria eta diskriminazio modu guztiak, estereotipoak eta gorrotoa bultzatzea, bai eta horien oinarrian dauden aurreiritzi eta jarrera kaltegarriak ere.

2004an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak **giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzarako mundu-programa** aldarrikatu zuen, aipatutako helburuak gauzatzeko eta sektore guztietan aplika zitezen sustatzeko. Zehazki, Nazio Batuen giza eskubideetarako goi-mandatariak ziurtatzen du programaren nazioarteko koordinazioa. Hark estatu kideen eta beste eragile batzuen ekintza bilatzen du, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza eremu eta etapa posible guztietan aplikatzeko.

Hasiera-hasieratik, hainbat fase antolatu dira, eta ahaleginak egin dira hainbat arlo eta taldetan.

Lehen etapan (2005-2009), helburu nagusia izan zen giza eskubideen hezkuntza lehen eta bigarren hezkuntzan txertatzea. Horretarako, gomendioak, jardunbide egokiak, giza eskubideak, hezkuntza-curriculumetan txertatzeko jarraibideak eta abar landu ziren.

Bigarren etapan (2010-2014), irakasle eta hezitzaileei, funtzionario publikoei, ordena-indarretako kideei eta maila guztietako langile militarrei giza eskubideen inguruko goi-mailako irakaskuntza eta prestakuntza ematea izan zen jomuga.

Hirugarren etapan (2015-2019), lehenengo bi etapetako aplikazioa indartu zen, eta komunikabi-deetako profesionalak eta kazetariak giza eskubideetan prestatzea sustatu zen.

35 "Kaltebera" kontzeptuak aldaezintasunaren ideia ekartzen du gogora, eta horren erantzukizuna kolektiboari egozten dio. Euskal Herriko Unesco Etxeak, aldiz, "kaltebera bihurtuak" kontzeptua aldarrikatzen du, ikusarazteko egiturazko diskriminazioa modu aktiboan gertatzen dela, ez faktore kontrolaezinen eta zoriaren ondorioz, eta hori zapalkuntza-sistema batekin lotuta gertatzen dela.

Gaur egun, laugarren fasean (2020-2024) gaude, eta helburua gazteak **ahalduntzea** da, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren bitartez. Etapa honetarako ekintza-planak 15 eta 24 urte bitarteko adinak biltzen ditu, eta bat dator Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin. Aipatutako hezkuntza-kontzeptu eta -metodoen arteko sinergiak kontuan hartzen badira, etapa hau berariaz **lerrokatuta** dago Garapen Jasangarrirako Helburuen 4.7 xedearekin.

Fase honetan lau elementu lantzen dira, eta horietako bakoitzak estrategia espezifikoak ditu. Lehenik eta behin, hezkuntza formalean, bigarren hezkuntzan, goi-hezkuntzan eta lanbide-heziketan giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza sendotu beharra azpimarratzen da. Horretarako, estrategia hauek proposatzen dira:

- Giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruzko hezkuntza-legeak eta ikasketa-planak.
- Gazteek hezkuntza-prozesuetan parte hartzea eta haien ikuspegia sartzea, diskriminaziorik gabe eta arreta berezia jarriz bazterkeria- eta zaurgarritasun-egoeran dauden gazteengan.
- Erregulazio formal hori inspiratzen duten nazioarteko jardunbide egokiak identifikatzea eta partekatzea.

Bigarrenik, hezkuntza ez-formalean jartzen da arreta. Alde batetik, gizarte zibilarekin eta, bereziki, gazteen elkarrekin lankidetzan arituz eta haien lana aitortuz, eta, bestetik, baliabideak, espazioak eta trebakuntza emanez.

Hirugarrenik, koherentzia sustatzen da gazteen errealitateak, kaltebera bihurtutako kolektiboak, indarkerien prebentzioa, diskriminazioaren aurkako borroka eta bakearen sustapena barne hartzen dituzten politiken, estrategien eta ekintzen artean, genero-ikuspegiari arreta berezia jarrita.

Laugarrenik eta azkenik, hezkuntzarekin eta giza eskubideekin lotutako nazioarteko konpromisoak betetzea sustatzen da, garapen jasangarriari eta 2030 agendari buruzkoak ere barne direla.

Hori horrela, **Eskura** proiektua, bere zerbitzu eta ekitaldien bidez, Nazio Batuen Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarako Mundu Programa gauzatzen saiatzen da. Horregatik, ezinbestekoa da zentroa herritarrentzako proiektu erabilgarri eta balioudun bihurtzea, bai sentsibilizazioa dutenentzat, bai publiko orokorarentzat. Gaur egun, testuinguru egokia dugu giza eskubideak, berdintasuna eta ingurumen jasangarria aldarrikatzeko, aliantzen eta hezkuntzaren bidez, baita geure burua ezagutzeko eta gure aniztasunean geure burua identifikatzeko ere.

Hitzaldia ikusteko, egin klik nahi duzun hizkuntzan: [euskaraz](#), [gaztelaniaz](#), [ingelesez](#).

Erreferentziak:

Nazio Batuen Erakundeko Goi Mandatariaren Bulegoa. (2004ko abenduaren 10a). *Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzarako mundu-programa (2005 – aribidean)*. <https://www.ohchr.org/sp/issues/education/educationtraining/pages/programme.aspx>

